



GOIERRITARRA



Ibiliz inguruak
ezagutu

Arg.: M. Albisu



h e m e n

DISEINU ALTZARIAK

URDANETA KALEA, 56 • 20240 ORDIZIA

TFNOA./FAXA: 88 46 41

KALITATEA ETA ZERBITZUA ZURE ESKURA



Jaunartzeko
argazkiekin
hasi gara...



FOTOETXIE

• JOSEMRITELLERIN
ARGAZKILARIA
BEASAIN

FOTO Goen

Slake Oiarhide
ARGAZKILARIA
ORDIZIA



ASTE SANTUA 97



Kale Nagusia, 36
16 15 46 - 47
BEASAIN

ESKIA

Martxoaren 27tik 31ra

● Baqueira Beret48.000etik
Autobusa, hotela *** P/E, 5 eguneko erremontea, aseguru eta gidaria

Martxoaren 26tik 31ra

● Andorra41.000etik
Autobusa, hotela *** P/E, 5 eguneko erremontea, aseguru eta gidaria

HONDARTZAK Martxoaren 27tik 31ra

● Costa Brava (mantenu osoan)21.500etik
● Costa Dorada (mantenu osoan)23.900etik
● Benidorm (mantenu osoan)23.700etik
● Palma de Mallorca43.300etik
● Tenerife70.300etik
● Lanzarote73.300etik

MUNDUAN ZEHA Martxoaren 26tik 31ra

● Lisboa (autobusez)30.900etik
● Paris (autobusez)32.500etik
● Amsterdam (autobusez)38.900etik
● Tunez (H****)63.600etik

Aukera gehiagotaz agentzian informatu zaitez!

**GOIERRITARRA
HAMABOSTEKARIA**

Argitaratzailea:

Goierritarak Kultur Elkarte

Dorre-etxea, 1

(Postetxe gainean)

124 posta-kutxa

20240 Ordizia

Tfnoa: 88 96 12

Faxa: 88 27 19

Zuzendaria:

Loinaz Agirre

Maketazioa:

Mikel Albisu

Publizitatea:

Josune Agirre eta Argider
Mujika

Erredakzio Batzordea:

Dionisio Amundarain, Jon Ara-
no, Mikel Albisu, Joseba Telle-
ria, Ane Martin, Loinaz Agirre
eta Estitxu Imaz.

Zenbaki honetako kronista eta
kolaboratzaileak:

Aitor Calvillo, Joseba Telleria,
Xabier Urteaga, Rufino Iraola,
Josune Amondarain, Koldo
Urrestarazu, Urko Irastorza, Ai-
tziber Murua, Josune Aldabe,
Eduarne Albizu, Gabino Murua,
Idurre Eskisabel, Asier Imana
eta Amagoia Muruamendiaraz.

Fotokonposizio eta maketa-
zioa: GOIERRITARRA.

Inprimaketa: Gertu (Zubillaga
9. Oñati)

Tirada: 6.300 ale.

ISSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

Frankeo kontzertatua: 37/76

GOIERRITARRAK ez du bere
gain hartzen derrigorrez, al-
dizkarian adierazitako esanen
eta iritzien erantzukizunik.

HAMABOSTALDIAN NABARMEN

Intsumituen bilera



Goierriko Objeto Taldeak (GOT) bilera egingo du martxoaren lehen Ordiziako Gaztetxean, Goierriko mugimendu antimilitarista "koma" egoeratik ateratzeko ahaleginak egiteko. "GOTen intsumisioaren alde dauden guztiek dute lekua eta ez intsumituek bakarrik", diote GOTekoek.

Gaur egun ia 200 intsumitu daude Goierrin. Sekula baino intsumitu gehiago egon arren, GOTen jende gutxiago dabil. "Jendea ohitu egin da eta jendeak ez du uste mobilizatu beharrik dagoenik. Jendea pasiboa da oso. Pasibotasun hori, gauzak oso erraz daudelako da. Intsumitu egiteko paper bat bete eta kitto, epai-
ketak ondo ateratzen ari dira... Goierrin jende gehiena lanean ari da eta 18-19 urterekin soldadutzara joan beharrean, arazorik ez izateko, ordaindu egiten dute".

GOTekoen ustez intsumisioa normalizatu egin da. Intsumitu asko daude eta jendea ez da harritzen kalean intsumitu bat ikustean. "Kode penala aldatzearekin lortu da intsumisioa normalizatzea. Ez da kartzelara joatea bezalako inpakto. Baina zailtasunak askoz ere handiagoak dira. Babes Ofizialeko etxebizitza bat erosteko, adibidez, anulatuta dago". Gauzak honela, intsumituen ustez, udalak inplikatu egin behar dira. "Eudiman (Euskal Herriko Udal Intsumituen Mankomunitatea) dute lekua horretarako. Goierrin Zaldibia eta Itsasondo daude Eudiman, nahiz eta udal batzuk intsumituei lanpostuak gorde edo mantendu. Kontradizioa da hori. Eudimaren bidea jorratu behar da, udalak inplikatzeko garaia da. Intsumisioaren alde bai, baina Eudiman ez dira sartzen".

GOTen arabera, "momentu honetan intsumisioa goitik behera doa, laster armada profesionala izango baita. Beste gauza batzuei heldu beharko zaie; esaterako, antimilitarismoaren arloan, objezio fiskala, armak egiten dituzten enpresak salatu, e.a.". Hori dela eta, GOTi izena aldatzea aztertuko dute bileran.

BOTA BERTSOA



Mikel Aranburu

Garraiolarien greba

Doinua: hamarreko haundia

Grebak denoi eragin digu horrenbeste ezusteko ez gasolina ez gasoilik kotxeari botatzeko ez arraultzarik ez esnerik ia ezer ez jateko eta gehiegi ez zuten falta fabrika denek ixteko egun batzuek aski dituzte bazter guztiak nasteko.

Konpondu zenez entzun genuen hainbat albiste atsegin baina aurretik eginda zeukan guretzako hainbeste min esan nahi diet gobernukoei ta enpresariei berdin elkarrizketa eta kontuak hurrena aurretik egin gure artean horrelakorik berriz gertatu ez dedin.

**Eusko Jaularitza-
ko Kultura Sailak,
Gipuzkoako Foru
Aldundiak eta**

GOIERRIKO UDALEK diruz lagundutako aldizkaria



GOIERRITARRA doan

jaso nahi dut etxean

Izen deiturak

Helbidea

Herria

Ordiziako 124 Posta Kutxara bidali

Lazkaoko herriari (latigo de herejes)

Lazkaoko herrian, joan den astean, beste eginkizun batzuen artean, Gestorak ezarritako Katxuen aldeko pankarta bat eta HBk jarritako "Euskal Herriarentzat demokrazia" beste bat, alkate jaunak prest eta berehala jasotzeko agindua eman zion udaltzaingoari. Ez da berria, betidanik saiatu da. Baina hau ez da dena; pankartak berreskuratzeko asmotan joan, eta ezezko borobila.

Honela Inazio Estensoro alkate jaunak orain arteko titulu guztiez gain, ondo merezitako beste berri bat du: "confiscador oficial del reino". Bejondaiala Estensoro, aurreragoko lanik ez zegok!

*Alberto Pelaez eta
beste 5 sinadura*

ZUT-i erantzunez

Azken GOIERRITARRAK herriko Kutxaren erreketari eskeinitako orri t'ediak go-goeta hauek egitera bultzatu gaitu.

ZUT-en komunikatuak agerian uzten digu beste behin ere, talde honek Euskal Herriak bizi duen egoera bortitziari irtenbide duina emateko erabiltzen dituen azterketa eskas eta norabidegabekoa noraino iristen den.

Gatazkaren espresio biolentoenen sustraia, herri honek autodeterminatzeko duen eskubidearen ukazioan datza. Gaur gaurkoz, Espainiak inposaturiko marko edo status politiko honek, ez dio euskal herritarren zati garrantzitsu bati bere proiektu politikoa garatzeko aukerarik ematen, alegia, proiektu independentistari.

Beraz, aukera guztiak garatzeko lekuri ez duen sta-

tusa ez da librea, edo ahazturik zaudete herri honen gehiengoaren borondatea izan zela Espainiar Konstituzioari ezetza ematea OTAN-i bezelaxe. Edo zer ekarri dio herri honi, zuek hain sutsuki defenditzen duzuen Estatuto honek, 18 urte beranduago ere hainbat transferentzi lortzeko daudelarik, hau ote da ba herritarren gehiengoak nahi zuena?

Beste atal batean horrela diozue "baina herri horretako gehiengoaren borondatea kanpoko indarrek oztopatu eta zapuztuko balute, orduan ere gehiengoari dagokio indar hauen aurkako estrategia eta medioak finkatzea"...Nola balute, ez al da ba egunero errealitatea? Zer eginkizun dute ba Guardia Zibilak, Polizia Nazionalek eta Ejerzito espainiarrak? Ze estrategia edo medio garatzen duzue, behingoz indar okupatzaile hauek gehiengoaren borondatea zapuztu ez dezaten? Zergatik kale borrokari bakarrik egotzi gehiengoaren aurka jarduteak, eta indar okupatzaileen edo Ertzaintzaren jarrera errepresiboak izkuta? Azken hauek herritarren gehiengoaren oniritzia ote dute ba? Ez ote da, eroso sentitzen zaretelako ezarritako marko edo status honetan?

Agian berriro esango duzue, laineza ematen ari garela jende bati eta hor jarraituko duzue, kondena soilarekin, baina horrelako ekintzen zergatia aztertzea jotzen ez badugu, nekez aurkituko diegu irtenbidea. Ez da errezerrietan ibiltzeko garaia, denok baitakigu indarkeri guztiek zer ondorio larriak dituzten beraiekin.

Gu ere solidarizatzen gara bizilagunekin, baina ez hori bakarrik. Komunikabide gehienek izkuta eta manipu-

latzen duten errealitatea herritar bakoitzari helarazten saiatzen gara, helburu batekin noski, eta euskal herritarren gehiengoarekin bat gaitozen ziurtasunarekin dudarik gabe.

Hemen gakoa, indarrezko espresioak gainditzeko fase berri bati ateak irekitzea da eta beraz errepresioarenak ixtea. Baina horretarako tresnak behar dira eta ez dakigu ze errezeta duen ZUT.-ek konponbiderako.

Geurea esango dizuegu; bat egiten dugula oraingoz kaleratu den bakerako "Alternatiba Demokratikoa" deitzen den proposamen bakarrekin. Hain mamitsua da proposamen honen edukia, non zuzendaritza politiko batetako kide guztiak kartzelaratzea ekarri duen.

Giza eskubide guzti guztiak aldarrikatzen dituzuela diozue, baina zuen praktikak bestelakorik erakusten digu, edo ez al da giza eskubideen bortxaketa, bakerako Alternatiba kaleratzeagatik, Juan Mari Olano herritarra espetxeratua izatea edo Atxo 800 kilometrotara dagoen Caceres-ko espetxean edukitzea? Ez al da ba Estatua bera lehenengo, giza eskubide nahiz kolektiboak bermatu behar dituen? Nola ulertu Estatuak eragindako giza eskubideen bortxaketa salatze-ko mozio baten aurrean, baietza edo sinadura bakarrik erabiltzen denean, Estatu honi aurre egiteagatik "giza eskubideen bortxaketa omen denaren aurrean" hain jarrera aktiboa, mobilizatzailea, iraunkor, argi eta garbia edukitzea?

*Zaldibiko Amnistiaren
Aldeko Komitea.*

Artista haundi horiei

Askotan entzun ohi dugu pertsona baten altuera ez dela metrotan neurtzen. Ordiziako musika eskolako haurren lana eta emaitzak maila altuetara iritsi direnez, esaldi horren esanahia betetzen dela esan dezakegu. Pailazogintza utzi banuen ere, denbora igaro ondoren atzean utzitako bizipenak pausatua go aztertzeo parada izan dudanean, urte horietan lortu nuen sona merezi dutenei eskertzea baino ez zait gertatzen. 1987an Takolo, Pirrux eta Porrotx sortu genuen. 1992an Imanol Urbietaren abestiez 'Hau umorea' konpaktoa grabatu genuen. Merkaturako konpaktu bat izateak emanaldi kopuru gehiago ekarri zuen, ezagunagoak ginen. Bigarren lana, 'Beti martxan' Iñaki Salvador musikariak egin zuen. Goierriko haurrek profesionalki parte hartu zuten lan honetan, Euskal-Herri osoan zabaldu zen guztiei esker. Haurren aho-tsez gain beren presentzia ezinbestekoa zen ikuskaria aberastuta ateratzeko. Beraiek grabatutako konpaktak eta bideoak leku askotan agortu ziren, Ordiziako pilotalekuan gertatu zen bezala.

Grabaketak aurrera jarraitu dute, eta jende aurrean zuzenean abesteak antzerkirako dohain bat eman die. Horren lekuko da 'Kili kili' bigarren diskoa, esketxen bat aspaldikoa bazen ere guztion lanari esker oso ondo borobildu zen. Haurren partaidetza baloreari eta sariari bideo eta ekitaldien balore erantsia gehitu behar zaie. Besterik gabe agurtzen zaituztet, zorionak eta eskerrik asko.

Pirrux (Patxi Sanz)

TXANDAKA

Hotzikarak

"Denak dira ostikoak denontzat, alferrik da disimulatzea, barruan lehortzen zaizkigu albisteak banan bana, eta hala ere eutsi egiten diogu". Horixe izkiriatu zuen Juan Luis Zabala idazleak otsailaren 14ko (San Valentin egun zorionekoa) 'Egunkaria-ko' azken orrian. Ez da zaila asmatzen: otsail ero honetaz ari zen —ilun eta hotz behar zuen eta argitsu eta epel joan da—. Epel baino bero, heriotza eta bortxa, eta odola eta negarra, eta sua eta kolpeak, dantzarako lotu baitziren inauteri garai horretan.

Arrazoi zuen Juan Luis lagunak, guztiongana iritsi da, denontzako izan da sufrimendu zati bat. Berarentzat ostiko izan dira, niri hotzikarak eragin dizkirate. Barru barruraino sartu zaizkidan hotzikarak. Eta gertaera latz guzti horien artean, suizidio oldea izan da hotzikara handiena sortu didana. Gogorra baita edonorentzat hurkoari bizitza kentzeko erabakia hartzea; gogorra baita inoren eskuetan bizitza galtzea; gogorra baita zerbait manifestatzeko bildutako jendetzari tiro egitea... Baina, gogorrago, ulergaitzago, nork bere burua hiltzea.

Beharbada, gu geuron etsipena gogorarazten digulako. Ezer gutxi garel. Eta bitzitzak —geure dugun gauza bakarra izan arren—, nahi genukeena baino gutxiago balio duela. Minbera gertatzen zaizkit Aranzamendi, Aranburu eta Unai Salanuevaren erabakiak. Etsipenezko hotzikara areagotzen didate.

Eskerak jakin dudan lagun batek bere burua Bilboko metroaren azpira bota duen arren, bizirik atera dela. Sinetsi nahi dut, trantze horretatik txarrean ere ongi ateratzek bizitzeko gogo emango diola. Uste horrek laguntzen dit arnasa hartzen. Muxu handi bat berarentzat.

Idurre Eskisabel Larrañaga



3. munduari laguntzarik ematen al diozu?




Pilar Gorrotxategi
75 urte, etxekoandrea
ormaiztegiarra

Bai, lagundu beharra dago. Telebistan hainbeste haur ikusten dira mixe-ran! Elizaren bidez, hiru hilabete behin laguntza bidaltzen dugu. Gu egoera horretan egongo bagina gus-tatuko litzaiguke guri laguntzea.

Joxe Barrenetxea
55 urte, postaria
ormaiztegiarra

Behar handia dago, komunikabideek erakusten dutenez. Behar adina ez da laguntzen baina ahal dena egiten da.



Rosa Mari Azurmendi
44 urte, etxekoandrea
ordiziarra

Gustatzen zait 3. munduari laguntzeko ekimenetan parte hartzea. Dena den, momentu puntualetan bakarrik laguntzen dut, ez segimen batekin.



GENERALI
Aseguroak

IÑAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20
☎ 88 87 02
BEASAIN



MUJIKA
LIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19
☎ 88 11 94
ORDIZIA


ZUHAIZKI

Zurgindegi Mekanikoa



-LEIHOAK, ATEAK
ETA ABAR

-ESKAILERAK
NEURRITARA



Beko kale, z/g.
Tel. 88 71 26
Faxa: 16 10 77
ITSASONDO
(Gipuzkoa)

ZINEA

GOIENIZ:

Martxoak 6, 'Cosas que nunca te dije', Usurbe Antzokian, 21:00etan.

BEASAIN:

'Les Diaboliques'. Martxoak 13, osteguna, 21:00etan. Jatorrizko bertsoan eta azpitituluak euskaraz. Korrika 10aren barruan.

ORDIZIA:



'The wonders'. Larunbata 1: 19:30 - 22:15; igandea 2: 19:30 - 22:15; astelehena 3, 19:30.

'Independence day'. Igandea 2: 16:45.

'Un dia inolvidable'. Ostirala 7: 22:15; larunbata 8: 19:30 - 22:15; Igandea 9: 19:30 - 22:15; astelehena 10: 19:30.

'Magia en el agua'. Igandea 9: 16:45.



'Cosas que nunca te dije'

Isabel Coixet (Katalunia-EEBB 1995)

Don etxe saltzaile lanetan aritzen den gizonezko bat da. Aisialdian, bere borondatez, itxaropenaren telefonoan iharduten duelarik. Ann, berriz, senargaiak utzi ondoren bera berreskuratzen saiatzen ari den emakumea da, horretarako "sekula esan ez nizkizun" bideo zinta bidaltzen diolarik. Elkarren bizitzak gurutzatu egiten dira eta euren bideetan sekulako aldaketak gertatzen.

Isabel Coixet-en bigarren luzemetraia hau, diru gutxi erabiliz egina, "autore" filme moduan ulertzen den horietakoa da, amerikar zinema independientetik, zinema espainiarretik baino gertuago dagoena. Istorio honek ematen duen itxura sinplea izanik ere, etorri handiko narrazio batez hornitua dago eta gora-behera handirik gabe, komedia eta drama arteko oreka ezin hobe era-kusten digu.

MUSIKA

ORMAIZTEGI:

Otsailak 28, Etzakit, Garbiñe eta Amaia trikitilariekin gaupasa, 22:30etatik aurrera. Garagardo festa izango da.

Martxoak 7, Zumarraga-ko 'La invidia' pop-rock taldea, Itxune tabernan, 22:30etatik aurrera.

BEASAIN:

Martxoak 3, Hirugarren munduko emakumeen egoerari buruzko hitzaldia, Txileko giza lanetan ari den Teresa Corderoren eskutik. 16:30etan, Udaletxeko Batzarre-aretoan. Antolatzailea: Asmube.

BEASAIN:

Martxoak 4, Eskarmentu profesional desberdinei buruzko mahaingurua, 19:00etan, Udaletxeko Batzarre-aretoan, Asmubek antolatuta.

LAZKAO:

Martxoak 4, 'Komunikazioaren izen deiturak'. Asier Otamendiren eskutik, Maizpide Euskaltegian, 21:00etan. Antolatzaileak: Lazkaoko Udala, Maizpide Euskaltegia eta Goiherriko Euskal Eskola.

Martxoak 6, 'Internet: munduko armiarma sare'. Asier Otamendiren eskutik, Udaletxeko Areto Nagusian, 19:00etan. Antolatzaileak: Lazkaoko Udala, Maizpide Euskaltegia eta Goiherriko Euskal Eskola.

OLABERRIA:

Otsailak 28, 'Eguraldia eta Tenporei' buruzko hitzaldia Pello Zabalaen eskutik, Kultur Etxean, 20:00etan.

ANTZERKIA

BEASAIN:

Martxoak 5, 'Emakume ausartak' taldearen 'Menta limoi' lana, Usurbe Antzokian, 17:00etan, Asmubek antolatuta. Dohainik.

ORDIZIA:

Otsailak 28, Markeliñe taldearen 'Kale Gorrian' antzez-lana, Herri Antzokian, 22:15etan. 'Antzerkiaren Garaia' programaren barruan.



Martxoak 7, Atalaya taldearen 'Elektra' antzez-lana (gaztelaraz), Usurbe Antzokian, 22:15etan, 'Antzerkiaren Garaia' programaren barruan.

GALDOS

- Egurrezko zoruak
- Mokekak
- Sintasolak
- Pintura eta barnizatuak

LENZERIA - LURRINDEGIA

Igartza Oleta, 12 ☎ 88 26 89
BEASAIN

GOIERRIKO ZURAK

Inportazioko egur biltegia
Ohol, aglomeratuak, e. a.

Hiribarren, z/g
☎ 88 80 23 LAZKAO

IKASTEK AKADEMIA

Kalitatea eta profesionaltasuna

- ✓ Eskola laguntza
- ✓ Unibertsitarioak
- ✓ Oposaketak
- ✓ Kurtsoak

Maila eta arlo guztiak
Zentru homologatua

☎ 16 01 20 Joan Iturrilalde, 5 BEASAIN

IKUSENTZUNEOAK

BEASAIN:

Martxoak 6, 'Turkiatik Birmaniara bizikletaz' diapositibak, Amaia Elozegi eta Esther Mugerzaren eskutik, 19:30etan, Udaletxeko Batzarre-aretoan, Udal Euskaltegiak antolatuta.

Martxoak 7, 'Afrika' diapositiba bilduma, Marronen eskutik, Aizkorri Mendizale Elkarte, 20:00etan.

IDIAZABAL:

Martxoak 13, "Pamierreko bihotzean" ikusentzuneakoa, Felipe Uriarteren eskutik, Kultur Etxean, 20:00etan.

LAZKAO:

Martxoak 12, 'Nepalen aurpegi izkutua', Amaia Elozegi eta Esther Mugerzaren eskutik, Maizpide Euskaltegian, 21:00etan. Antolatzaileak: Lazkaoko Udala, Maizpide Euskaltegia eta Goiherriko Euskal Eskola.

OLABERRIA:

Otsailak 28, 'Islandia' lana Javier Fernandezaren eskutik, Kultur Etxean, 19:00etan. (Gaztelera).

ERAKUSKETAK

BEASAIN:

Martxoaren 2ra arte, Loinazko San Martini buruzko erakusketa, Usurbe Antzokian.

Martxoaren 2ra bitartean, Jesus Lopez Zulueta-ren pintura erakusketa, Arrano tabernan.

Martxoaren 14ra bitartean, Modesto Ferreiraren erakusketa, Aterpe Tabernan.

ORDIZIA:

Martxoaren 1etik 14ra, Pello Gaztañagaren erakusketa, Barrenan.

IKASTAROK

BEASAIN:

Martxoaren 4an hasita, 'Oroimena ezagutu eta hobetzeko' ikastaroa, erretiratuentzako, Jubilatuen etxean. Kutxako Aula 3-k antolatua.

BESTELAKOAK

BEASAIN:

Martxoak 8, Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoak, 17:30etan, Usurbe Antzokian, AEK-k antolatua.

MENDI IRTEERAK

Beasaingo mendizaleak:

Martxoak 2, Lizarrusti-Beasain.

Martxoak 9, Bedaio-Otxabio-Altzaga.

Arrano Kirol Taldea:

Martxoak 2, Itxina-Atxak.

Martxoak 8-9, Lescun-Billare eta Lescun-Petretxema.

Ordiziako mendizaleak:

Martxoak 2, Lizarrusti-Putterri-Arbizu.

Martxoak 9, Legazpi-Aztiria-Segura.

Idiazabalgo mendizaleak:

Martxoak 9, Ilarazu-Arano.

DEBALDEKO IRAGARKIAK

Lana:

☐ Emakume bat lanerako prest dago. 88 42 43.

Etxebizitzak:

☐ Etxebizitza salgai Ordizian. Sala handia, 3 logela, sukaldea (jantzia) eta 2 bainu (jantziak). 88 97 67.

☐ Pisu salgai Ormaiztegin. Handia, berriztatua eta gas naturalarekin. 72 27 94.

☐ Pisu ederra alokatzen da. Dei ezazue telefono honetara: 80 60 38.

☐ 120 m2-ko garajea alokatzen da, almagaz bezala edo garaje bezala erabil daiteke. 80 60 38.

☐ Ganbara salgai, Ordiziako Santa Maria kalean. Bi logela, egongela, sukaldea, bainugela eta trasteroa. Teilatua aldatu berria. 885717.

Salerosketak:

☐ Emaztegaiaren soinekoa salgai (neurria: 38). Gaueko 9.00etatik aurrera deitu, 88 82 92 telefonora.

☐ Eskiak salgai: trabesia egitekoak, berri berriak: Rossignol Yeti -185 zm.- + Silvretta 404 + larruak, 30.000 pzta. Fondoko ekipo osoa, ia erabili gabe: Fischer eskiak + Atomic lokarriak + makilak + Salomon botak 42 zb., 12.000 pzta. Alpinoko botak: Salomon 92 equipe 39 zb., 8.000 pzta. Tfnoa: 27 84 28. Gaez.

☐ Lehiaketarako txirrin-dua salgai: Colnago 'Master Olympic' italiar markakoa. Gutxi erabilia. Campagnolo 'Chorus'-96 grupoa. 250.000 pezteta. 18 01 15. Otordu garaietan.

Bestelakoak:

☐ Marshall Valvestatte, 8 batiodun kitarra anplia salgai. Berria eta salneurri interesgarria. 88 47 68. Jon. Otordu garaietan dietu.

☐ Beasainen 1961-1963 bitartean atera zen 'Loinaz' aldizkariaren ale hauek erosiko nituzke: 2, 4, 5, 12, 13, 14 eta 15. Asteburuko bazkalondoetan 88 30 68 telefonora hots egin.



GOARDIAKO FARMAZIAK

Astegunetan: Arriola (Plaza Nagusia - Ordizia).

1-2: Urbizu (Nagusia, 8-Beasain).

8-9: Arriola (Plaza Nagusia - Ordizia).



Asier Imaz

HBko militantea

“Alternatiba Demokratikoan ez da herri honentzako inongo inposaketarik ageri. Herri bezala dauzkagun eskubideak errespetatu, eta herriari hitza ematean oinarritzen delako”

Azkenaldian, asko entzuten ari da Alternatiba Demokratikoa hitza, baina litekeena da oraindik ere, bere edukinaren inguruan zalantzaren bat eduki edo zertan datzan ez jakitea. Hau hala izango dela auresuposatuz, ETAK 1995eko apirilaren 26an plazaraturiko normalizazio politiko eta justiziazko bake proposamen honen nondik norakoak argitzera natorkizue.

LEHENENGO FASEAN, ETA eta Estatu espainolaren artean itaundu beharrekoa honako hauxe litzateke:

● **Euskal Herria aintzakotzat hartzea. Autodeterminazio eskubidea eta lurralde batasuna aintzakotzat hartzea.**

✓ Autodeterminazio eskubidea ez da jarrera politikoa, herri garen aldetik zor zaigun eskubide demokratikoa baizik. Eskubide hau noiz, nola eta zertarako gauzatzen den euskal herritar guztioi dagokigun arren, eskubidea halakotzat hartua izango dela ziurtatu beharra dago. Euskal Herriak askatasun osoz bere etorkizuna erabaki behar duelako ezinbestean.

✓ Euskal Herria aintzakotzat hartua izan dadin, egungo lurraldeen zatiketa gainditu beharra dago, lurraldeen batasuna onartu eta egungo muga instituzionalak suntsituz. Lurraldeen batasuna nola gauzatu, Euskal Herria nola eratu eta antzekoak, Euskal Herriaren subirautezko erabakiak adieraziko du.

● **Euskal Herrian irekiko den prozesu demokratikoaren emaitza errespetatzeaz:**

✓ Herriaren hitzari ezin mugarik jarri. Horrenbestez, prozesu demokratiko honen

Alternatiba Demokratikoa plazaratuz

garapen eta emaitzak —direnak direla— errespetatuko dituela segurtatu behar du Estatu espainolak.

✓ Prozesu demokratiko hau bideratzeko gutxieneko baldintza da herritar guztiek bertan parte hartu ahal izatea, inongo presiorik jasan gabe. Beraz, prozesu demokratikoa gorputz dadin ezinbestekoa da amnistia orokorra erdies-tea, preso guztiak kalera irten eta ihesi joandako guztiak berriz itzulita.

✓ Era berean, ezinbestean neurriak hartu behar dira indar armatu espainolek prozesuan parte har ez dezaten.

Euskal Herrian prozesu demokratikoari hasera emateko, aurkezturiko kontuak, Estatu espainolak onartzen baditu, ETAK su-etena iragarriko du.

HURRENGO FASEA, Euskal herritarren artean eztabaidatu eta itundu beharrekoa:

✓ Euskal herritarrei bakarririk dagozkien arazoak erabaki ahal izateko hasi behar den prozesu demokratikoan, sindikatuak, elkarteak, mugimendu sozialek, alderdi politikoak, instituzioak eta hitz batez, gizarte osoak hartu behar du parte, aukerak eta eztabaidarako marko egokiak zehaztuz.

✓ Prozesu honetan zehar, gutxien-gutxienez gai hauek zehaztu beharko dira: autodeterminazio eskubidearen garapena (formulazioa, metodologia, aukerak, epeak, e.a.); lurraldeen batasunaren eraikuntza eta formulazioa; Euskal Herri guztien arteko

harremanak; itundu behar den erakunde instituzionalaren eskuduntzak, aldeztetik erabakitako inongo mugarik izan gabe; Euskal Herria euskalduntzeko plangintza; plangintza eta eredu sozio-ekonomikoa; Euskal Herriaren desmilitarizazioa (Armaden betekizuna, suntsiketa eta polizi indarren osaketa eta izaera); hezkuntza alorreko eskubideak; askatasun demokratikoak...

Honetantxe datza Estatuari hainbeste beldur eman eta hainbeste kontraesan sortzen dizkion Alternatiba Demokratikoa. Testu honen edukina plazaratzeagatik dago gaur egun kartzelan Herri Batasunaren Mahai Nazionala nahiz, eta aitzakia, bideo konkretu bat izan.

Alternatiba Demokratikoan ez da herri honentzako inongo inposaketarik ageri. Herri bezala dauzkagun eskubideak errespetatu, eta herriari hitza ematean oinarritzen delako.

Herri honetan inposaketarik inon baldin badago, Estatuak herri hau zanpatzeko erabiltzen duen 78ko Konstituzio espainiarrean dago: guztiok espainiar izatera behartuak gaude, eta hori nahi ez duenarentzat, ejerzitoa, goardia zibila, kartzela... hitz batean, egurra!

Aurkeztu berri dudan hau xe da, benetan Euskal Herria eta Estatuaren arteko gatazkari irtenebidea emateko mahai gainean dagoen, demokratizazio (herriari hitza ematean) oinarrituriko alternatiba bakarra. Beste aukera batzuk badaude, baina ez dira herriaren hitz librean oinarritzen.

Hemendik aurrera, Alternatiba Demokratikoa zer den dakigun heinean, ez dakitenei jakinarazten lan garrantzitsua daukagu guztiok. Euskal Herria aterako da garaile.

ERREZETA



Rakel Soto
Haizpe jatetxea
Ordizia

LIMOI TARTA

Oinarriaren osagaiak: 500 gr. gurin, 300 gr. azukre, 3 arrautza, kopa erdi kuantro, laranja birrindura bat eta 800 gr. irin.

Gurina batitu eta azukrea gehitu ondo batu arte. Bati-tzetik utzi gabe, arrautzak, birrindura eta kuantroa gehi-tu. Irina nahastu eta eskuekin landu ondo batu arte. Hoz-gailuan 8 orduz eduki ondo-ren, moldean luzatu eta labe beroan sartu, 10 minutu 165°.

Tartaren osagaiak: 125 gr. gurin, 5 limoi en zukua, 2 li-moi en birrindura, 8 arrautza eta 125 gr. almendra.

Dena ondo nahastu, mol-deari gehitu eta labean sartu 200°-tan gogortu arte.



Amagoia
Muruamendiaraz
Gerotologoa

Jakina da, elikadura on batek osasun fisiko eta mentala dakarrela. Bide batez, zahartzearen proze-sua atzeratu eta bizi kali-tatea hobetzen du.

Gorputzak dituen kalori premiak, adinak, sexuak, egindako ariketak eta me-tabolismoaren oinarri oi-narrizko beharrek muga-tzen dituzte. Adinarekin, oinarri oinarritzko metabo-lismo delako hau gutxituz doa. Ariketa fisiko eta mentalak ere urriagoak izaten dira. Beraz, gorpu-tzaren beharrak, nolabait aldatu egiten direla esan genezake.

Honen ondorioz, hona

AHOLKUA

Adin hadikoen elikadura

segidan, eguneroko elika-duran kontuan izan behar-ko genituzken hainbat aholku.

- Fruta eta berdurak ego-kiak lirateke, batez ere freskoak eta garaian ga-raikoak. Zuntzez (fibra) aberatsak dira eta odo-leko kolesterola jaisten dute.

- Esnea, jogurt, gazta eta honelakoak komeniga-riak dira; batez ere emakume menopausi-koengan.

- Ogi integrala eta zerea-lak osasungarriak dira. Idorreriaren (estreñi-miento) aurkakoak di-ra.

- Gatza gutxiago erabili beharko litzateke.

- Grasa eta koipeak gu-txitu egin beharko lira-teke. Bide egokia da ja-nariak plantxan edo/eta egosiak prestatzea. Bestalde, esne gainga-betua erabili beharko litzateke.

- Azukre eta gozo gutxia-go jan beharko lirateke.

- Litro edo litro t' erdi ur edan beharko lirateke egunero. Kontuan izan adinarekin egarri-sen-tsazioa gutxituz joaten dela.

- Erretzea ez da gomen-dagarria, ez eta alkoho-lik edatea ere. Dena den, basotxo bat ardok otorduekin ez du kalte-rik egiten.

- 3 edo 4 otordu egin be-harko lirateke egunean. Garrantzitsuena gosaria litzateke eta otordu-tar-teak zaindu beharko li-rateke.

- Ahalik eta gehienetan, lagun edo/eta familia-koekin egin beharko li-rateke otorduak.

Dena den, tarteka sal-buespen batzuk ez dira hain kaltegarriak; izan ere euskaldunon artean ez da falta otordu on batez ospa-turiko festa edo bilerarik.

OSKARBI
OINETAKOAK

Kickers

Mota guztietako eta adin guztien-tzako oinetakoak.

K. Nagusia, 25
☎ 88 19 44 **ORDIZIA**

ARTEKA

- Esku lanak
- Ikastaroak
- Opariak

☎ 67 39 07
Euskal Herria, 11
IBARRA

☎ 88 40 56
Andra Mari, 5
BEASAIN

NATURA ZU ZAJNTZEN

Dietetika
Sendabelarrak
Kosmetika naturala
Kontsulta naturista
Iridiologia
Pisu kontrola
Dieta pertsonalizatuak
Masaje terapeutikoak
Txinako medikuntza tradizionala

NATUR HOUSE
☎ 16 02 29
Urdaneta, 54 **ORDIZIA**



18 hilabeteko kartzela 2 segurarrentzat

Donostiako epaitegiak Xabier Albisu (HBko zinegotzia) eta Oier Berasategi segurarrei, 18na hilabeteko kartzela zigorra ezarri die, 1995eko ekainaren 17an, ertzain bati mehatxu egiteagatik. Errekurritu egin dute epaia, eta larunbatean, prentsurrekoa eman zuten beraien bertsioa azaltzeko.

Gertaerak Josu Aierbe presoaren zinegotzi kargua hartzeraz Ordiziako Udaletxera ekarri zutenean kokatu behar dira. Sententziak dioenez, jendeak Aierberengana iristeko bultzakadak eta golpeak eman zituen eta Ertzaintzak, "ordena manten-

tzeko", bertan bildutakoak sakabanatu zituen eta ertzain batek gomazko pelotarekin lagun bat jo zuen. Albisu eta Berasategik ertzaina ezagutu eta ingurukoei nor zen esan, eta gau bertan ertzain horren etxean pinta-dak azaldu omen ziren.

Xabier Albisuk larunbateko prentsurrekoan esan zuenez, egun hartan, "Txupi eramatera zihoazenean, jende multzo bat elkartu zen eta Aitor Azpeitia Segurako ertzainak, gomazko pelota bat bota zion mutil bati bizpahiru metrora, lurrera seko erori zen, bihotz ondoan zuten pelotakadaren ondo-

ren. Askok pentsatu genuen hilda zegoela. Zauritua atenditu eta ertzainari kontuak eskatu genizkion. Jendea ez apuntatzeko eskatu genion, baina ez zigun inolako kasorik egin". Zaurituak salaketa jarri zuen ertzainaren aurka, baina haserako forma akatsak zirela eta, artxibatua gelditu zen. "Alderantziz, ertzain horrek gure aurka salaketa jarri zuen 'atentado a la autoridad' izenarekin", zehaztu zuten.

Sententzia dela eta zenbait egunkarik eman duten bertsioa ere salatu zuten HBkoek. "erabat manipulatu, tendentziosoa eta nazkagarria azaldu dute". Dei anonimoak ere izan omen dituzte. Era berean, egunkariak momentu politiko egokia bilatu dute albiste hau kaleratzeko, "Sententzia urtarilaren 31n eman zuten baina egunkariak Bilbon izandako manifestazioaren ondoren argitaratu zuten, Ertzaintzaren jarrera zuzentzeko".

gehiago hurrengo alean.

Zinpeko epaimahaiak epaituko du itsasondarra; 8 emakumek eta gizonezko batek osatzen dute.

Txemi Arteaga

Langraizko kartzelan geldituko zela esan bazioten ere, Albacetera eraman dute berriz ere Txemi Arteaga beasaingar preso. Gasteizen intsumisioagatik zuen epaiketagatik ekarri zuten Txemi Albacetetik Langraitza.

Itxialdiak

Itxialdiak egin ziren otsailaren 21etik 22ra, Goierriko hainbat udaletxetan. "Mahai Nazionalaren kartzeleratzea salatu nahi izan dugu. Estatuak berriro ere bakearen mezularien mezua jaso beharrean, kartzeleratu egin du. Gure helburua da Alternatiba Demokratikoa zabaltzea eta gizarteratzea", dio HBk.

Segura

Otsailaren 22 gauean, ezezagun talde bat Segurako EAJren Batzokia eta Kutxaren bulegoa erretzen saiatu zen.

Bisita gidatuak

Otsailaren 22an Goierri zehar Goiekik prestatu dituen zirkuitu turistikoek lehenengo bisita izan zuten. Udaletxeetako zenbait ordezkariak eta Goiekiko kideak hartu zuten parte. Ordizia, Beasain eta Segura bisitatu zituzten. Hurrengo bisi-

Juanbi Erauskin

Ostiralero Zamudion ETak bahitua duen Cosme Duclauxen alde egiten den konzentrazioan parte hartu zuten Juanbi Erauskin Ordiziako alkateak, otsailaren 14an. Delclauxen familiari elkartasuna azaldu nahi izan zuten era honetan.

Era berean, otsailaren 24an, Gipuzkoako 48 alka-

tek elkartasuna eta babesa eskaini zieten ETaren ekimenak pairatzen dituzten enpresariei. Juanbi Erauskin izan zen bozeramalea.

Mikel Otegi

Otsailaren 24an, arratsaldeko 4etan hasi zen Mikel Otegiren aurkako epaiketa. 1995eko abenduaren 10ean bi ertzain eskupeta tiroz

hiltzea leporatzen zaio. Itsasondorak esan zuenez, bi ertzainei pentsatu gabe egin zuten tiro, eta hildakoen familiarengatik sentitzen duela gaineratu zuen. Ertzaintzaren aldetik jazarpen handia jasaten zuela esan zuen. Astearte goizean, berriz, Itsasondora etorri ziren guztiak, gertaerak berreraikitza. Informazio

EROSKI

KAFETEGIA

gosari - merienda
eguneroko menua

88 27 93

ORDIZIA

JOSUNE & KLAUDE
ileapaindegia & edergintza

'Edergintza eta ileapaindegia
tratamendu guztiak

Iturtxo, 5 16 22 56 ORDIZIA

PUB
ASTI
Zaldizurreta kalea
88 45 06
BEASAIN

ta gidatuak martxoaren lehen eta 8an izango dira. Lehenengoak kasko historikoak bisitatuko ditu, eta bigarrenengoak Aralar Parke Naturala. Interesa duenak dei beza 16 18 23 telefonora.

Eroski

Eroskik PET enbasea merkaturatu du Eroski markako ur botilatuarentzat, PVCaeren ordez. Material honek ez dauka klororik bere osakeran, nekezago hausten da, erabat garden da eta eskua-ekin presio txiki bat egin hutsarekin oso erraz biltzen da, bere bolumena heren batera ekarriz. Gainera, plastiko birziklagarria da, arropa-zuntzetara eta alfonbrak egiteko edo enbase berriak fabrikatzeko erabiltzen dena.

Azkue sariaketa

Euskaltzaindiak eta BBK-k antolatutako Resurreccion Maria Azkue literatura lehiaketan, 10-13 urte bitartekoen mailan, narrazio sailean, lehenengo bi sariak Irati Goikoetxea beasaindarrek eskuratu ditu. 1995eko edizioa ere berak irabazi zuen. Olerki sailean eta maila berean, Beasaingo Edurne Berasategi izan da irabazle. Gazteen atalean, berriaz, narrazioan, Ataungo Ainara Aizpuruak eraman du hirugarren saria.

Karlos Argiñano

Beasaindar sukaldariak Juanma Bajo Ulloaren 'Airbag' filmean aktore bezala parte hartuko du. Don Serafin Ortiz de Zarate izango da. Aktore lanaz gain, filme horren finantziaketan ere parte hartuko du.

Alzheimerra

Alzheimerrek jotako gaixoei etengabeko zainketa behar dute, zaintzaile profesionalena edota familiara. Hori dela eta, Ordiziako Udaleko Ongizate Sailak, zaindariantzako ikastaroa antolatu du: gaixotasuna zertan datzan; gaixotasunak gaixoengan eta zaindarien gain eragin duen aztertu; dementsia duten agureen zainketarako lan egokiak egin; psikogeriatriko aldetik lotutako baliabideak eta programak ezagutuko dira. Martxoaren 10etik 20ra izango da ikastaroa, astelehenetik ostegunera, arratsaldeko 3.00etatik 5.15etara. Mugatua da ikastaroa eta otsailaren 28ra bitartean eman behar da izena. Informazio gehiago 88 82 50 telefonoan duzue.

Bola-jokoa

Otsailaren 22an Seguran jokatu zen Goierriko txapelketako bola txapelketan, German Gereñu legazpiarrek bota zituen birlarik gehien: 8 botalditan 49. Bigarren Eriz Intxausti segurar gaztea izan zen 48rekin eta hirugarrena Inazio Zuloaga aiarra, 48rekin. Goierriko txapelketako hurrengo botaldia Olaberrian jokatu da, Joxe Kerejetaren omenez.

Zerainen Endika Alustiza zenaren omenez jokatu-takoan, otsailaren 23an jokatu zen, Gilberto Juaristi izan zen irabazlea, 8 botalditan 48 birla bota baitzuten. Jarraian Alejandro Usabiaga hernaniarra izan zen; 3. Luis Aizpeolea zeraindarra eta 4. Martxelino Agirre segurarra.



Korrika 10.a

Korrika 10.enak Arantzazun ekingo dio bere ibilbideari martxoaren 14an eta Bilbon amaituko da martxoaren 23an. Euskararen aldeko iharduera erraldoi honen inguruan Goierriko Korrika batzordeek hainbat kultur ekintza eta ekitaldi antolatu dituzte:

Hitzaldia: 'Euskararen egoera Iparraldean eta Korrika' Lazkao Maizpide Euskaltegian, martxoaren 3an gaueko 8.00etan. 'Iparra-Hegoa' aste kulturalaren barruan.

Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoak: Beasaingo Usurbe Antzokian martxoaren 8an arratsaldeko 5.00etan eta 7.00etan (bi emanaldi). Ikuskizun berriaren aurkezpena.

Kuestazioa eta kale animazioa herrietan martxoaren 8-9an. Korrikako materiala ere salgai izango da.

Pelikula euskaraz Beasaingo Usurbe Antzokian martxoaren 13an gaueko 9.00etan. Goieniz Zine Klubak antolaturik Irizar Kooperatiba, Goierriko Euskal Eskola eta Hitaroren laguntzarekin.

Kontzertua Itsasondon martxoaren 15ean. Herriko Gazte Asanbladak antolaturik.

'Korrika oinez' mendi ibilaldia Ordizian martxoaren 16an goizeko 9.30etan irtenda. Oiangu parkean amaituko da eta bertan mokadutxoa emateaz gain, animazioa ere izango da.

Korrika-afaria eta sukaldaritza lehiaketa Beasaingo Arkupetan martxoaren 14an. Afari prestaketa eta lehiaketa Goierriko elkartearen artean izango da eta bertan prestatutakoarekin afaria egingo da Arkupetan. Afarirako tikeak Euskaltegi eta ohiko tabernetan salgai.

Korrika Goierri zehar martxoaren 17an goizeko 11.00etatik 1.00a bitartean. Legorreta, Itsasondo, Ordizia, Lazkao, Beasain eta Ormaiztegi izango dira ibilbideko herriak.

Txiste lehiaketa martxoaren 19 arte bidal daitezke txistek Ordiziako Goiztiri AEK Euskaltegia 116 Posta-kutxara.

JESUS MARTINEZ ORDIZIARRA MENDI IBILBIDEAK BALIZATZEN ARITZEN DA

Mendi-ibiliak: inguruko bide interesgarriak

Mendi-ibilia edo senderismoa balizatuta dauden ibilbide guztiak dira. Izaera historikoa edo balorearen bat duen bidezidorrak balizatzen dira. Gure arbasoek erabili izan zituzten bideak, aintzinako galtzadak, eta geografia edo historia azaltzen diguten bideak. Baserri bideak, nekazal ustiakuntzak... Mendi-ibilien proiektu bat egiteko ingurunea ezagutu behar da, zer dagoen eta hortik intereseko puntuak, aintzinako komunikazio puntuak... lotu. Honen berri azaldu digu Jesus Martinez ordiziarra.

- Nori zuzendua daude mendi-ibilaldi hauek?

- Mendizaletasuna baino zerbait gehiago da. Mendia ez da batzuen bakarrik, baizik eta gizartearena orokorrean. Hau dela eta 3 ibilbide mota daude: ibilbide haundiak (GR), hauek egiteko egun bat baino gehiago behar da; ibilbide txikiak (PR), 30 km baino gutxiagokoak; eta herri bakoitzeko ibilbideak, 10 km baino gutxiagokoak dira. Zailtasun eta distantzia ezberdinak daude eta ahal den jende gehienengana iritsi nahi da, beraien aisialdia betetzeko aukera ezberdinak izan ditzaten. Prestakuntza fisiko berezirik ez duenak ere ingurune natural batez gozatzeko aukera izan dezatela.

Ibilbide haundiak, teorikoki jende adituagoarentzat daude prestatuta, baina, hainbat herrietatik pasatzen direnez, bakoitzak bere era-

ra egin dezake, osoa egin beharrean puskaka eginez. Berdin ibilbide txikiak lotuz, ibilaldi luzeak ere egin litezke.

- Nola lantzen dituzue ibilbideak?

- Alde batetik balizajea dago. Ibilbide handikoek marra txuri-gorriak dituzte, ibilbide txikikoek txuri-horriak eta orain egingo dituzten herri bakoitzekoak txuri-berdeak. Zutikako seinalizazioa ere badago, norabideak azaltzen dituen geziekin, hauek bide bat baino gehiago elkartzen direnean egoten dira. Bidearen informazioa, distantziak ere azaltzen dira. Beste informazio bat panel eta mapek ematen dute, hauetan natura errespetatzeko aholkuak eta antzekoak ere azaltzen dira.

Bestetik ibilbideko gidak edo topogidak daude. Oraingoz Gipuzkoan bakarra dago argitaratua, 'Gi-



Goierri markatuta dauden PR ibilbideak hauek dira: Ordiziatik Gaintza eta Altagaratera eta berriro Ordiziara; Ordiziatik Lazkao mendira; Lazkaotik Lazkao mendira; Ataun San Martindik Troskaeta elkartera; Ataun San Gregoriotik Aiara; Kaxetatik Lareoko urtegiara; San Gregoriotik Etxegaratera; Etxegarartetik Beasaina; eta Ataungo Ergoena auzoko Bernoa galtzada.

puzkoako bira' eta beste bi daude argitaratzen, 'Donostiatik Arantzazura' eta 'Aralarko bira', biak ere Goierri pasatzen direnak. Honez gain hainbat aldizkarietan azaltzen dira ibilbideak eta udaletxeetan ere badaude herriko ibilbideen foileto edo liburuskak.


- Zein da mendi-ibliaren helburua?

- Batetik herritarrei beraien inguruan dutena hobeto ezagutzeko aukera ematea, baserri inguruak erakustea. Azken aldian hainbeste hitz egiten den baserri munduaren garapenean parte hartzea. Komunikabide zaharrak berreskuratzea, ibiltzeko moduan ez dauden bide hauek garbituz. Gehiegi erabiltzen diren lekuak jen-

dez arintzea. Jende guztia leku batera joaten da eta hori bakarrik ezagutzen dute. Adibide garbia Aralar da, jendea Txindoki edo Aotzara bakarrik joaten da, eta Aralarko bira inguruko herri guztietatik pasatzen da, mendiaren ikuspuntu ezezagunago bat azalduz.

- Nortzuk ari zarete lan hau egiten?

- Lehenik Gipuzkoako Mendi Federakundeako mendi-ibilien komisioa dago. Hor arduradun bat dago eta hainbat jende ari da kolaboratzen, kanpoko lanak, markaketak eta abar egiten. Orain Euskal Herriko mendi-ibliaren elkarte sortu da, hau bultzatzeko. Mendi Federakundean zuzendaritza berria sartu denetik



- Igeltseritza lan mota guztiak
- Etxebizitzarako materialak, azuleju eta zoruak
- Bainugelarako tresna, iturri eta gehigarriak
- Hidromasaia bainerak eta saunak
- Subaju eta ikatz eta egurrezko sukaldeak

Barandiaran
ZERAMIKAK

☎ 88 79 72
Senpere, 7
BEASAIN

mendi-ibilia nahiko alde batera utzi baitu, goi mendia bultzatuz. Ibilbide txiki guztiak utziko dira eta 3 ibilbide luze bakarrik bultzatuko dira. Hau atzerapauso bat da eta horretarako sortu da elkarte, gure lana jarraitzeko.

Orain arte mendi-ibiliak instituzio publikoen laguntzari esker funtzionatu du. Aurrerantzean ere horrela izango dela iruditzen zait.

- Balizajearen aurkakoak era ba omen dira.

- Ezin da mendi guztia markaz bete, hori garbi dago. Mendizaleak, balizajearen aurkakoak izan ohi dira, mendia abentura bezala edo hartzen baitute, beraiek bakarrik ezagutzen dituzten lekuak izan nahi dituzte, eta hau faltsua da. Ondoren gainera, mendiari buruzko milaka liburu argitaratzearen aldekoak dira, edo Piri-neotan harri-piloak marka bezala erabiltzeren aldekoak. Hori kontraesana dela iruditzen zait.

Orain arte erabili den kriterioa herri bakoitzean 3 bide balizatu baino gehiago ez egotea izan da. Herriak

oso zabalak badira 6 ere egon litezke. Orain herri bakoitzeko ibilbideak azaldu direnean hau aldatu egin beharko da eta ibilbide txiki hainbateko bat eta herriko ibilbide hainbateko bat jarri beharko da.

- Goierriin zer lan egin duzue?

- Mendi ibili txikiak Goierriin hasi zirela esan liteke. Ibilbide txikiak zeuden gaur egungo Aralarko bira denaren inguruan. Orain iaztik hona gehiago landu dira ibilbide sare bat osatuz, mendi-ibilietak bideak beste hainbat ibilbiderekin nahastu dira. Proiektu interesgarria da, 64 ibilbide ezberdin aterako dira. Hau Goimen eta Goiekirekin elkarlanean ari gara egiten eta udaberri, uda aldean kalera-tuko da liburuska bat. Oso didaktikoa izango da, Goierriko gaien berri emateaz gain, oinarri grafiko garrantzitsua izango du, argazki askorekin. Azkeneko Fitur-en garrantzi handia izan zuen Goierri, eta hori interesgarria da.

Gipuzkoako Mendi federakundeak 10 mendi-ibili bide balizatu ditu Goierriin



eta beste 3 (Zerainen) berehala egiteko asmoa du. Hauetako gehienek alde dutena, leku berdinean hasi eta bukatzen direla da, mugitzeko errezagoa delarik.

- Turismoa bultzatu nahi da, mendi-ibiliak zer garrantzi du hor?

- Mendi-ibilia oso garrantzitsua da egiten diren beste ekintzen osagarri bezala. Etor litekeen jendearentzat aukera ezberdinen eskaintza bat egin behar da. Mendi-ibiliak beti izan ditu gabeziak ostatu eta beste ihar-duera osagarri batzuen mailan. Ona da zenbait elkarte eta erakundeen arteko koordinazio bat egotea, barneko turismo edo turismo berdea

deritzaiona bultzatzeko.

- Zer egiten duzue jendeari ibilbideak ezagutarazteko?

- Alde horretatik gabezia bat dagoela iruditzen zait. Lehenengo asmoa ibilbide sare bat prestatzea izan zen. Orain, oinarri hori dagoenean, hasi gara hauek bultzatu eta ezagutarazten. Alde batetik topogidak eta liburuskak argitaratuko ditugu. Mendi elkarteekin ere badago harremana, beraien iteeratan mendi-ibilak egiteko. Kirol eskolarraren barruan ere 3 urte daramatzagu, urtean 5.000 ikasleek parte hartzen dute. Oraingoz pauso txikiak ari gara ematen.

Mikel Albisu



Juanito Rubio



Oianguren parkea

☎ 88 91 06

ORDIZIA

UDABERRIKO MENUA

1.-

Kardu eta alkatxofak urdai azpikoarekin
Bakailao eta baratxuri freskoen nahaskia
Udaberriko entsalada
Perretxiko eta baratxuri freskoen hojaldrea
Arrain eta marisko zopa

2.-

Txekor entrekota piparrekin
Baserriko oilaskoa patata panaderekin
Bakailao xolomoa piperradarekin
Ahate deliziak oportora

Etxeko postreak, Errioxako ardoa, sagardoa...

1.850 pzt. + BEZ

Horrez gain, betiko karta, asteburuetako menu bereziak, hala nola babarrunak eta baserriko oilaskoa



Gaixo eta zaharren egunezko eta gauezko zainketa etxe eta ospitalean

Bost urte daramatzagu gure zahar eta pertsona ezinduak zaintzen

-Deitu konpromezurik gabe-

Senpere Zentru Komertziala
BEASAIN ☎ 16 21 04
☎ 989 - 70 34 86 (24 orduz)

Etkez-etxeko Laguntza Zerbitzua herritarren eskura

Beasaingo udaletxeko Ongizate Sailak etxez-etxeko laguntza zerbitzua aztergai izan zuen jardunaldia antolatu zuen urtarileko azken egunean. Eguneroko eginbeharrak egiteko arazoak dituztenei dago zuzendua zerbitzu hau. Gipuzkoako herri guztiek eskaintzen dute. Beasaingo udaletxeko Ongizate Saileko arduraduna den Karmele Elolak kontatu dizkigu zerbitzu honen xehetasunak. Beasainen esaterako, 50 lagunei eskaintzen zaie etxez-etxeko laguntza zerbitzua.

- Zer da etxez-etxeko laguntza zerbitzua? Zer eskaintzen du?

- Autonomia falta duten pertsona guztiei dago zuzendua, Eguneroko eginbeharrak egiteko arazoak dituztenei. Jaiki, oheratu, jantzi, otorduak prestatu, garbitasuna egin, arropa garbitu, etxeko garbitasuna, gestioak egin, medikuarengana joan, errezetak jaso, pensioa kobratzera joan... Jende gehienek etxeko lanak egiteko eskatzen dute. Baina zerbitzu honek, etxeko lanak egitea baino askoz gehiago eskaintzen du.

Asko jota 3 ordu izaten ditu zerbitzu honek egunean. Erdi mailako autonomia izan behar du onuradunak. Batere autonomiarik ez duenari ez zaio zerbitzu honekin arazoa konpontzen. Beste zerbitzu batzuk daude horretarako.

Ez da hirugarren adineko pertsonentzako zerbitzua bakarrik. Errealitatean dena



Beasaingo Udaleko Ongizate Saileko kideak.

den, zerbitzu hau agureek eskatzen dute. Autonomia falta izatea eskatzen da, eta 65 urtetik gora izatea.

- Zein ezberdintasun dago etxe-garbitzaileen eta etxez-etxeko laguntzako langile baten artean?

- Etxez-etxeko laguntza etxeko lanak egiten dituen zerbitzua dauka, baina horretaz gain, beste gehiago ere baditu. Eta hori da ezberdintasuna. Bestetik, langilearen eta Ongizate Sailaren artean koordinazioa egoten da, onuradunaren prozesua aztertze. Interina batek ez du hori egiten, ez dago jarraipenik. Langile hauek onuradunarengan aldaketarik ikusten badute, guri esaten digute, egoera hobetzeko.

Bestetik, interina kontratatzen duen pertsonak berak zehazten ditu eginbeharreko lanak zeintzuk izango diren. Etxez-etxeko zerbitzuan Udalak erabakitzen du zein behar dituen, pertsona horren egoera ikusita.

- Nortzuk izaten dute lehenetasuna zerbitzu hau jasotzeko?

- Lehenetasuna da, autonomia falta izatea. Ondoren, lehenetasuna ematen zaio laguntza pertsonalari eskatzen dutenei.

Baina beste laguntzak behar izaten dituztenak ez dira baztertuta gelditzen. Guk laguntza pertsonalari garrantzia gehiago ematen diogu.

- Nola finantzatzen da?

- Diputazioak, Udalak eta onuradunak finantzatzen dute. Pertsona eta familien diru-

sarrerak hartzen dira kontuan. Diru-sarrera horren barruan sartzen da, daukaten kapitala eta ondasunak. Horren arabera kobratzen dugu.

- Gai honi buruzko jardunaldiak egin dira Beasainen. Zer dela eta?

- Herri bakoitzak irizpide ezberdinak ditu zerbitzu honetan. Diputazioari kritika egin zitzaion, 1982an martxan jarri zen zerbitzua oraindik ere arautu gabe dagoelako. Oso garrantzitsuak izan dira jardunaldiak, herri ezberdinetako esperientziak ezagutzeko aukera izan dugulako. Ondorio batzuk atera dira. Orain garrantzitsuena falta da, atera diren ondorioak betetzeko konprometua hartzea.

L.A.

Ondorioak betetzeko garaia

Urtarrilaren 31an egin zen Beasainen I. Beasaingo Gizarte Ongizate Ihardunaldia. Etxez-etxeko laguntza zerbitzua izan zuten aztergai. Gipuzkoa osotik etorritako arduradunek. Eztabaidatu eta esperientziak trukatu ondoren, Karmele Elola Beasaingo Ongizate Saileko arduradunak adierazi digunez, askoren artean, ondorio hauek nabarmenduko lituzke:

1.- Zein diru-sarrera hartuko dira kontutan? "Zerbitzua eskatu duenaren eta 18 urtez beherako seme-alaben diru-sarrerak. Orain artean etxe horretan bizi diren pertsona guztien diru-sarrerak hartu izan dira kontuan. Adibidez, ezkontuta dagoen seme batek gurasoak bere kargu baditu eta guraso horiek laguntza eskatzen badute, laguntza eman bai, baina etxe horretan sartzen diren diru-sarrera guztiak hartzen dira kontuan. Batzuetan diskriminazioa sortzen du. Zerbitzu hau eskatzen zutenen seme-alabek ez dute aportazio ekonomikorik egin behar. Seme-alabek gurasoekin dute konprometua eta ez administrazioarekin, hauek ez dute zertan dirurik eman beharrik".

2.- Bestetik, seme-alabak izanda ere, zerbitzu honen aukera ba al dago? "Bai. Seme-alabek konprometzu morala badute baina kontutan hartu behar da zerbitzu hau oso puntuala dela. Asko jota 2-3 ordu egunean. Ordu asko gelditzen dira, zerbitzu hau emanagatik seme-alabak ez dira libre gelditzen, beste ordu asko baititu egunak".

3.- "Etxez-etxeko laguntza eskaintzen duten pertsonen artean formazio edo berziklaketa falta ikusten da. Diputazioaren ardura izan beharko luke horrek".

"II. Iparra-Hegoa" asten Seguran



"Iparra-Hegoa" harremanen sinbolo bezala, Iparraldetik ekarrita-ko gerizondoa errebote plazan landatu zenekoa iazko otsailean.

Segurako Elorri Kultur Elkartekoek eta Urruñako Berttolikoek zein Iparraldeko hainbat abertzalek antolatu duten "II. Iparra-Hegoa" aste kulturala, martxoaren 3tik 9ra ospatuko da aurtengoan. Baionan aurkeztu zuten joan zen asteartean, eta helburua, iazko berbera da: Herri bera osatzen dugunok, elkar ezagutzea, ulertzea, osatzea eta azken batean, batzea.

Ekitaldi nagusiak Seguran zentratuko badira ere, gaiek oihartzun handiagoa merezi dutelakoan, astebarruko hitzaldiak, iaz bezalaxe, Goierriko zenbait herritara zabaltu dira. Segura Irratian ere, aste guztian, 15:00etatik 16:00etara, irratsaio bereziak izango dira Iparraldeaz.

Berrikuntzak

Aurtengo ediziorako bada zenbait berrikuntza, besteak

beste, artisau eta nekazal produktuen azoka, jaiko partez zapatuan egingo da; bertan gainera, Segurako produktuen postuez gain, herriko artisauak izango dira. Hurrei dagokienez, ostegunean, Donibane Lohitzuneko Ikastolako neska-mutikoek Segurakoekin pasako dute eguna. Kirolari dagokionez, zapatuan futbol partidua eta jaietan pelotak partidua jokatu dute Iparraldeko Hegoaldekoen kontra. Jaiko bazkarian, 'Guk' musika taldea izango da. "Iparra-Hegoa"ren ni-kiak ere aterako dira, eta edizio honetarako atera den errifaren zozketa, gerizondoaren inguruko ekitaldian egingo da.

Martxoaren 3an, Lazkaon

Hitzaldia: "Euskararen egoera iparraldean" eta "Korrika 10". Hitzlariak: Teresa Lekunberri, Euskal Kultur

Erakundeko partaidea eta Joan Mari Larrarte, Gipuzkoako AEK-ko arduraduna. Maizpiden, 20:00etan.

Martxoaren 4an, Ordizian

Hitzaldia: "Hemen Herrikoa" lana sortzen laguntzeko Iparraldeko elkarteaz. Hitzlariak: Jean Louis Laka eta Jean Thicoipe, aipatutako elkarteak. Barrena Kultur Etxean, 20:00etan.

Martxoaren 5ean, Zaldibian

Hitzaldia: "Instituzioak Iparraldean". Hitzlariak: Jakes Sarrailet eta Panpi Sainte-Marie. Kultur Etxean, 20:00etan.

Martxoaren 6an, Seguran, Donibane Lohitzuneko eta Segurako haurrek elkarren arteko egun-pasa egingo dute.

Idiazabal: Hitzaldia: "Gazte mugimendua Iparraldean". Hitzlariak: Eneko Bidegain, Iker Claverie eta Arantxa Eiherabide. Kultur Etxean, 20:00etan.

Martxoaren 8an, Seguran

● 11:00etan hasita, Iparraldeko eta Hegoaldeko artisau eta nekazal produktuen azoka. Goierriko sagardoa dastagai. Korrikako eta Seaskako materiala ere izango da. Karpa jarriko da plazan.

● 16:30etan, Iparraldeko eta Hegoaldekoen arteko futbol partidua "Alustiza" futbol zelaian. Bertan izango da Herburuko txaranga.

● Iluntzean, Segurako talak eta Irulegiko ardoa dastagai. Herburuko txaranga kaleetan.

● 23:00etan hasita, "Etza-kit" eta "Skunk" taldeen kontzertua frontoi itxian. Sarrera: 600 pezeta.

● Ondoren, kale animazioa Herburuko txarangarekin.

Martxoaren 9an, Seguran

● 11:00etan, diana herriko "Kriseilu" txistulari taldearekin.

● 11:30etan, pelota partidua, Iparraldekoek Hegoaldekoen kontra, "Beti-Alai" frontoi zaharrean.

● Ondoren, Donibane Lohitzuneko "Begiraleak" dantza taldea plazan. Hau bukatzean, Erreboteko gerizondoaren inguruko ekitaldia. Bertan, "Iparra-Hegoa"rako atera den errifaren zozketa egingo da.

● 14:30etan, herri bazkaria aterpetxean. Bazkalondorena "Guk" taldeak alaituko du. Bazkari txartelak Elorripen salgai.

● 18:00etan plazan "Muxikoak" dantzatzu emango zaio amaiera aurtengo "Iparra-Hegoari".

Joseba Telleria

KONTSULTORIO MEDIKU-KIRURGIKOA

Goierritarrentzako mediku zerbitzu espezializatuak

Ordua eskatzeko tfnoak: 88 57 50 - 88 57 54


Nafarroa Etorbidea, 25 - 2.

BEASAIN

IBAI-ONDO

ZURGINTZA
ALTZARIAK

P.V.C.ko LEIHOAK



Antzizar Auzoa, z/g

880543

BEASAIN

GABIRIA

Udalak argazki lehiaketa antolatu du herritarrentzat eta bertako gaia Gabiriako paisaia, pertsonaiak, ohiturak eta abar izango da. Par- taide bakoitzak gutxienez 4 eta gehienez 6 argazki aurkeztu beharko ditu berauen negatiboekin batera. Argazkiak koloretan nahiz zuri- beltzean izan daitezke.

Lanak martxoaren 22a baino lehen aurkeztu behar- ko dira udaletxean, sobre itxi batean eta izenik agertu gabe. Udaletxean sobre ba- koitzari zenbaki bat jarriko diote eta epaimahaioek au- keraketa egiterakoan ez du- te zeinena den jakingo. Epaimahaia argazkigintzan adituak diren zenbait kidek osatuko dute eta erabakia apirilaren 13a baino lehen ezagutaraziko da.

Hiru sari banatuko dira, hain zuzen ere, apirilaren

Igo argazki lehiaketa herritarrentzat



Bi herritar eta atzean Murgil.

20an Kultur Asteko ekin- tzen barnean. Horretaz gain, lan sarituak eta epaimahaia- ren ustez onenak diren bes- te hainbat Udalaren esku geratuko dira eta erakusketa bat ere egingo da Kultur Aste horren barruan.

Murgilgo herri-saila

Herri-pinudia izenez eza- gutzen dugun lur saila bir-

landatzeko asmotan da Udala eta horretarako jada- nik sail hori guztia garbitu eta landareak sartzeko zulo- ak ere eginda dituzte.

Diputazioko adituak ari- tu dira eginkizun horretan eta bertako lurra aztertu on- doren haxe da aditu horien asmoa: lur onena dagoen le- kuan haritzak eta larizio pi- nua aldatuko da 3x2 neu-

rrian, eta ilarak alternatuz. Hain ona ez den lekuan ar- tea, artelatza eta berez dato- rrenari eutsiko zaio beha- rrezko baldin bada banaka- tuz.

Orain arteko proiektua- ren arabera, 1.650 haritz landare, 1.650 larizio, 2.000 arte landare eta 100 artelat- z inguru sartzeko asmotan di- ra. Guztira, beraz, 5.400 landare inguru sartzeko di- ra.

Landaketa hori egiteko aurrekontua 666.750 peze- takoa da eta horri garbiketa lanaren kostua erantsi be- harko litzaioke. Denera, mi- lioi bat inguru kostatuko da eta horren portzentaia han- dia Diputazioaren dirula- guntzen bidez ordainduko da.

Gabino Murua

ORMAIZTEGI

1995eko ekainaren 17a ez- keroztik, Martin Perez de Albeniz izan da herriko al- kate, otsailaren 13an bere dimisio formala aurkeztu zuen arte.

Dimisio honen arra- zoiak aurreko aleetan adie- razi bezala, Ispillu S.L. en- presa Ormaiztegin koka- tzearen aldetik etorri dira. Ondoren dimisioa aurkez-

tu eta alkate berria aukera- tu arte gure herriak alkate- rik gabeko egun batzuk izan zituen. Otsailaren 17an hartu zuen kargua al- kate berriak. Iñaki Maiora izango da datozen hilabe- teetako alkatea.

Iñaki Maiora herriko alkate berria

Korrika gure herritik

Martxoaren 14an, Korrika- ren hamargarren edizioa hasiko da, eta 17an igaro- ko da gure herritik.

Euskara batuaren abia- puntua izan zen tokian ber- tan, Arantzazun, hasiko da 10. Korrika, eta Euskal Herri osoa zeharkatu ondo- ren, Bilbon bukatuko da 9

egun beranduago, martxo- aren 23an. Omendua Aita Villasante euskaltzaina izango da.

Aitziber Murua

Argitarapen honen edizioa seguita.


En la edición de esta publicación colabora.



fundazioa
fundación

OLABERRIA

Kultur astea igandera arte



Otsailaren 24an hasi eta martxoaren 2ra bitartean iraungo du aurtengo kultur asteak. Hitzaldiak eta ikusentzuneak izan dira orain arte ikusteko aukeran. Aurrerantzean, hona hemen, egunegun aurkituko duzuen:

Otsailak 28:

19:00etan: 'Islandia' ikusentzuneak Javier Fernandezek eskutik, Kultur Etxean. Gaztelaraz izango da.

20:00etan: Pello Zabala eguraldi gizonaren eskutik, 'Eguraldia eta tenporak' az-

tertuko dira. Euskaraz arituko dira. Kultur Etxean izango da hitzaldia.

Martxoak 1:

11:00etan hasita: Joxe Kerejetaren omenezko I. Bola Jaurtiketa izango. Arratsalde ere izango da bola-jokoa.

12:00etan. Anjelusarekin batera, Bolatokiko berrikuntzen inauguraketa egingo da.

16:00etatik 20:00etara: Euskal artisau eta herriko produktuen erakusketa izango da. Partaideak: ezti (Eugenio Elortza), gazta (Mikel Etxezarreta), artilea eta galtzerdiak (Joxe Albizu eta Xanti Goiburu), egur tailaketa (Isaac Perez), eskuaragilea (Agustin Legor-

buru), saskigintza (Lurdes Etxaniz), sagardoa (Etxezuri, Berasategi), ogia (Ertziltxo), piperrak (Jose Angel Munduate), barazkiak (Balda baserria) eta Lazkao Talogileak.

21:00etan: Zikero jana eta ondoren Orioko Zurrumurru taldekoen txiste eta bertsoak.

Martxoak 2:

9:00etan: Hirumugata mendira irteera. Olaberriko plazatik abiatuko dira. Itzultzerakoan mendizaleek hamaiketako dastatzeko aukera izango dute Arkupe Elkartearen.

17:00etan: Azkona pailazoen saioa. Ondoren haur guztientzat txokolate beroa.

LEGORRETA

Herriko jaien antolaketa

Aurreko urteetan luzatutako deialdien ondorioz jasotako partehartze murrizak eta ekarpen eskasak kontutan izanik, herri honetako biztanleek jai egitaraua gauzatzeko partehartze handiagoa izan behar luketele uste du Udalak. Hori dela eta, norbanako, laguntalde, elkarte edo beste edozein asoziaziori honako hau proposatzen die:



- Herri jaiei begira dauzkan ideia edo iradokizunak idatziz ekartzeko epe bat irekitzea.

- Ekarpinak Udaletxean utzi beharko dira eta ekin-tza zehatz batetik, jai egitarau oso batetaraino joan daitezke.

- Ekarpinetarako epea otsailaren 28an itxiko da.

Gauza jakina da guztion lana dela festen antolaketa. Herriarron eskuetan dago

beraz hein handi batean festa antolaketa. Edonoren ekarpena izan daiteke interesgarria, horretarako partehartzera ausartzea besterik ez duzu. Orain daukagure gustoko festak antolatzeak aukera, pasatukoan kritikatzeko alperrikakoa izango da.

Josune Amondarain

Ignacio Garmendia Goya

- ✓ Txatarra, altzairu txirbil eta metalen erosketa
- ✓ Neurri ezberdinetako edukiontzien zerbitzua
- ✓ Merkatuko salneurriak egokienak

Alderdieder, 1

80 64 29 - Faxe: 80 61 14

LEGORRETA



88 55 00

ORDIZIA

ZALDIBIA

Kutxaren erreketeta dela eta



Azkeneko GOIERRITA-RRAn dossier txo bat eskaini genuen izenburu honekin: "Erreketa baten historia". Beste dokumentu batzuen artean, lehenengo aldiz erre ondoren, HBk publikaturiko komunikatua sartu genuen. Hara zer zioen 8. puntuan: "Adibide bat jartzearen: Zer pake uler daiteke esate baterako, Gaintzako Sokobioko mutil batek, polizia omen dela eta, Zaldibiko neska abertzale bat edo Ataungo mutil iraultzaile bat (edozer egin dutela ere), katez loturik, preso, Jaengo Guardia Zibilei entregatzen dienean Madrilgo Komisaldegian torturatzeke, gero Zamorako eta Madrilgo Juez eta Fiskalek juzkatu eta kondenatu ditzaten?"

Hor aipatzen den Sokobioko mutil horrek segidan doan honako idatzi hau bidali digu, ale honetan argitaratara dezagun:

Azkeneko GOIERRITA-

RRA leitzen ari nintzela, HBren komunikatuko 8. puntura iristean, harriturik eta jotama geratu nintzen. Ez dut muturra politikoen lanetan sartzeko inolako asmorik, baina komunikatu horretan nire izena, intentziorik txarrenarekin nik uste, aipatzen denez, puntualizazio batzuk egin beharrean nago:

01.- HBk komunikatuaren puntu horretan esaten duena gezur nabarmena da, izan ere aipaturiko atxilotaketa horiek Guardia Zibilak egin zituen. Beraz, nik ez dut zer ikusirik; ezta nire landikeek ere, nik dakidanez. Badut ardura, bai, eta saiatzen naiz, gustatu ala ez, nire lana ahalik eta ongien egin eta dagokidan neurrian Euskal gizarte osoa zerbitzatzen. Baina ez zait iruditzen gezur nabarmen eta interesatuaren aurrean isilik geratu behar dudarik. Behatzarekin apuntatzen ari zatzaizkidan

horrengandik neure burua defendatzeko eskubide osoa dudala deritzot, bai baitakit zuk behatzarekin apuntatu izan duzunari askotan zer gertatu izan zaion.

02.- Egia da adibide gisan narabiltzula, baina adibideak jendeak zerbait hobeto uler dezan erabili behar dira, eta ez jendea engainatu, nahastu eta konfunditzeko; are gutxiago izen propioak mahai gainean eta zeraren aurrean ipiniz.

03.- Ez dut ulertzen Kutxaren erreketarekin ni zer arraiorengatik erlazionatu naizun. Gertaera horren benetako erresponsableak aurkitu nahi badituzu, horien bila ez daukazu Gaintzaraino etorri beharrik; seguru nago, gertuagotik hasiko bazina, lehenago aurkituko zenituzkeela.

Tomas Matxain ertzaina
Sokobio (Gaintza)

46 lagun langabezian

Peoi bat kontratzeko deialdia luzatu du Udalak, eta bide batez jakin ahal izan dugu gure herriko langabezi tasa zein den ere. 46 bizilagun dira egoera horretan aurkitzen direnak. Datu hori apur bat zehaztearren, esan dezagun, azkeneko erroldaren arabera, 1.572 biztanle dituela Zaldibiak. Langabezian daudenetatik 32 emakunekoak dira eta 14 gizonezkoak. Ikasketei

dagokienez: 14 dira Graduatu Eskolarra dutenak; 9, OHO eginak; 8 BBB edo UBI amaituak; 8, LH1 edo LH2 ikasiak; 3, erdi mailako karrera dutenak; eta 4, goi mailako karreradunak.

Gosearen kontrako kanpaina

Parroki elkarteak bultzaturik, gosearen kontrako kanpaina egin zen otsailaren 2tik 9ra. Arduradunen iritziz, kanpaina honek oso frutu onak eman ditu. Arropa, garbikari, oinetako, janari, etab. erruz bildu da, eta, horiez gain, 343.270 pezeta ere bai dirutan, Santa Ageda eskekoa eta beste aportazio batzuen artean. Hori dela dela, antolatzaileek eskerrik beroenak luzatzen dizkiete herritar guztiei.

Auto garbiketa

OHOk 8. mailan dauden eskola-umeek, kurtso amaierako irteera ordaintze aldera, auto garbitzeko zerbitzua ipini dute. Honela iragartzen dute: "Zure autoari garbitu lege bat emango genioke!". Pello Sukiaren garajearen egongo dira: larunbatetan, goizeko 10:00etatik 13:00etara eta arratsaldeko 15:00etatik 18:00etara; igandeetan, berriz, goizeko 10:00etatik eguerdiko 13:00etara.

Rufino Iraola

Inprimategia
EDUZKI
Nafarroa Etorbidea, 9
☎ 88 94 82
BEASAIN

Gaztelu

● Iturgintza
● Berogintza

Mendi-Ondo etxea
☎ 88 40 57
ZALDIBIA

Esteban Lasa, 7
☎ 88 80 29
BEASAIN

BEASAIN

Irati eta Ekaitz Goikoetxea: etorkizuneko idazle eta bertsolariak



Ekaitzek 16 urte ditu eta Iratik 12. Anai-arrebak dira biak eta idazlan nahiz bertsopaper lehiaketetan hainbat sari jaso dituzte. Iratik azkena, Euskaltzaindiak eta BBK-k antolatutako Azkue lehiaketan, ipuinen sailean, lehenengo bi sariak irabazi ditu, 'Bake mezuaren garrilari' eta 'Gorostia, basoaren erdian irla bat' lanekin. Anai-arrebekin izan gara hainbeste sari jasotzearen sekretua non egon ote litekeen eta zaletasuna nondik nora datorkien jakiteko asmoz.

Ekaitz oso txikitatik da bertsolari zaletua, nahiz eta etxean ez zen bertso girorik. Bertso grabazioak, bideoak, jaialdiak... bertsoak entzuten eta irakurtzen aritzen zen Ekaitz. "Irakasle batek berehala nabaritu zidan bertsotarako dohaia eta Ordi-ziako Bertso Eskolara joateko esan zidan. Bertsozaletasuna Ekaitzek ekarri du familiara eta Irati Ekaitzen jarraitzailea da. Ipuinak idazteaz gain, aurren hasi da bertso-eskolan.

Bertsoak eta ipuina idazten dituzte. Ekaitzek lehen ipuina gehiago idazten

zituen, baina orain batez ere bertsoak, gustorago sentitzen da. "Idazlan onak egitea gehiago kostatzen da", dio. Iratik batez ere ipuina, "oraintxe hasi naiz Bertso-eskolan, bat-batean bertsoak josten".

Irudimena edo imajinazio nondik datorkien galde-tzean, zera erantzun dute. "Idazteak eta irakurtzeak imajinazioan asko laguntzen du. Imajinazioa norberak sortzen duena da, ez da ikasten. Irakurtzea da idazteko gauzarik garrantzitsuena".

Gustokoen dituzten gaiak naturaren ingurukoak dira. "Orain soldaduskara joateko deia jaso dudanez, nire aurkako jarrera azaltzeko intsumisioa gaia jorratuko dut. Euskal Eskola Publiko-ari buruzko gaia ere lantzeko daukat", dio Ekaitzek. Iratik bi sari irabazi berri ditu eta bi gai jorratu ditu: bata xaboi botela bat berrera-biltzen da, bake mezulari bihurtuz; bestea, natura-ingurugiroaren aldeko oihu ozen bat.

Ondo pasatzeko idazten dute eta lehiaketek motiba-

zioa sortzeko balio dute.

Ekaitz bat-bateko bertsolari txapelketetan ere aritzen da. "Jarriak nekezagoak dira. Gehiago pentsatu behar da. Bat-batean, gustorago aritzen zara eta ez dago hainbesteko nekerik. Bota eta kitto!".

Eskolarteko bertso txapelketa prestatzen ari dira biak, maiatzean izango baita. Irati lehenengo aldiz aurkeztuko da.

Bertsolari gazte talde ona dago Goierri. "Argi-Berrik antolatzen dituen bertso-afariak oso ondo etortzen zaizkigu, askatzeko. Herri mailan bertso arloan ez da

ezertxo ere egiten. Bertsolariok eta ez dugu tokirik herrian. Idazlan arloan, ordea, oso ondo dago planteatuta. Sari asko ematen baitira, jendea bultzatzeko".

Aurrera jarraitzeko asmoa daukate, nahiz eta ikasketek horretarako gero eta denbora gutxiago utzi. Elkarriketa bukatzeko, bi anai-arrebok lortu duten maila lortzeko lagundu dietenak eskertu nahi izan dituzte: Argi-Berri elkarte, Mikel Mendizabal, Alaitz Sarasola eta Jexux Goikoetxea ataundarra.

L.A.

Laburrean

● 245 gizonetako eta 330 emakumetako daude **langabezia** Beasainen, 575 guztira. 20 eta 34 urteko gazteen artean dago langabetu kopuru gehien. Gizonetako kasuan, 55 urtetik gorakoetan ere handia da langabezia.

● Martxoak 8, Nazioarteko Emakumearen egunaren inguruan, **emakumearen astea** antolatu du Asmube emakume taldeak. Martxoaren 7an Ataunen egingo den afariaren bukatuko dute. Izena, martxoaren 5aren aurretik eman behar da. Asteazkenean, berriz, ekintzak hauek dira:

Martxoaren 3an, Txilen giza lanetan aritzen den Teresa Corderoren hitzaldia izango da Udaletxeko Batzarre-Aretoa, arratsaldeko 4.30etan. Hirugarren munduko emakumeen egoerari buruz hitz egingo du.

Martxoaren 4an, mahaingurua izango da, eskarmentu profesional ezberdinen inguruan. Hau ere, Udaletxeko Batzarre-Aretoa, 19:00etan.

Martxoaren 5ean, 'Emakume ausartak' antzerki taldeak 'Menta Limoi' lana aurkeztuko du Usurbe Antzokian, arratsaldeko 5.00etan.

Martxoaren 8tik aurrera, Asmuben egindako lanen erakusketa izango da Usurbe Antzokiko Erakusketa-Aretoa.

Bestalde, Asmubetik jakitera eman digutenez, martxoaren 3tik aurrera, Interneten azalduko da asmube: asmube-beasain @ redertb-es helbidean.

● Kontxiren balet eskolatik jakitera eman digutenez, martxoan, larunbatero, 11.00etatik 12.30etara, **saloiko dantza ikastaroa** izango da. Jose Maria Iturrioz kaleko aretoa izango da. Informazio gehiago 88 28 17 telefonoan duzue.

IDIAZABAL

Etxegarateri buruzko bilera

Goierrri, Tolosaldea, Araba eta Nafarroako alkateek osatutako Etxegarateren aldeko plataformak bilera egingo du Idiazabalen martxoaren 7an. Otsailaren 21ean bildu ziren azkeneko plataformako ordezkariak Altsasun. Bilera hartan ordea ez zen aurrerapauso handirik eman, Antton Irizar alkatearen esanetan Etxegarateri buruz "akordioa egon badago, baina Goierriko hainbat alkateren artean ezadostasunak sortu dira".

Altsasuko bileran lau aldeetako ordezkariak, lekuan-lekuko Diputazioekin izandako bileren berri eman zuten. Horien inguruan balorazioak egiten hasitakoan sortu ziren ezadostasunak eta bilera ez aurrera ez atzera geratu zen.

Idiazabalgo bileran Altsasun aztertzekoa zuten gai zerrendako hirugarren puntuari helduko diote. Puntu honek agente sozialen (enpresa, sindikatu, gizatalde...) inplikazioa aurreikusten du. Auzia gizartera zabaltzea da puntu horren helburua Idiazabalgo alkatearen esanetan.

Beasain, Ordizia, Lazkao

eta Tolosako alkateek Gipuzkoako Diputazioaren aldeko jarrera agertu zuten Altsasuko bileran. Idiazabalgo alkatearen postura bestelakoa da. Antton Irizarren esanetan, "guk ez dugu Diputazioak esandakoa sinisten". Diputazioak ordezkariari Etxegarateri lanak egiteko epeak jarri eta konpromezua hartzeko eskatu die, alkatearen esanetan "Nafarroako Diputazioak lurralde horretan egin beharreko lanak egiten hasteko konpromezua hartu eta datak ere eman ditu".

Bi hitzetan

● **Herri Batasunak itxialdia** egin zuen Udaletxean otsailaren 21etik 22rako gauean. Mahai Nazionalakideen kartzeleratzea salatu eta Euskal Herriarentzat askatasun eta demokrazia eskaria egin zuten. Martxoaren 7an greba orokorrerako deia ere egin zuen HBk.

● Otsailaren 26an jaso zuen **Zirika irratia** Emakundek komunikabideentzat antolatutako lehiaketan irabazitako saria. Bilboko Nervion hotelean izan zen sari ema-



Herriko saihezbide edo bariantea

Etxegarateri bikoizketa egiterako, herriko saihezbidea edo bariantea bikoiztu beharko da. Urtea bukatu aurretik hasiko dira horretarako lanak. Proiektua eginda dago, eta Diputazioak dagoeneko bideak hartuko dituen terrenoak markatu ditu. Udalak ordea proiektuari buruzko hainbat zalantza ditu eta alegazioak egiteko asmoa du besteak beste ondoko puntu hauen aurrean: batetik San Inazio ermita parean egingo den zubi berriak ez du Segurarako irteera biderik aurrikusten. Bestalde Benta Txiki inguruan egingo diren irteera eta sarrera errepideek inguruko hainbat baserrietatik herrira etortzeko modua zaildu egingo dute.

tea. Zirika irratiarekin batera, El Munduko egunkariak eta Bilboko Telebilbao telebistak jaso zuten saria.

● Aurten ere **nesken arteko boleibol lehiaketa** antolatu da. Dagoeneko hiru taldek eman dute izena lehian aritzeko. Orain hasi eta maiatz aldera bitartean jokatuko

dituzte partiduak Kiroldegian.

● Martxoaren 9an **mendi irteera** izango da. Goizeko 7.30etan abiatuta Ilarazu-Arano ibilbidea egiteko aukera izango da. Gipuzkoako itzuliari dagokion hirugarren irteera da hau.

Xabier Urteaga

URBITARTE sagardotegia




- Egunero irekita, nahiz eta sagardotegi denboraldia bukatu
- Sagardotegiko menuaz aparte arraina ere egongo da
- Berezitasuna txuleta eta sahieskietan

Erreserba telefonoa: 18 01 19

Ergoiena Auzoa ATAUN


Autowag, s.a.



Gasolina eta Diesela

☎ 88 82 54 - 88 82 62 - 888266
N-1 errepidea, 419 Km BEASAIN

VOLVO



ŠKODA
Volkswagen taldea

ANZIZAR, S.A.

Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea

Beasain-Zumarraga, 46 Km.a

☎ 88 17 00 - 88 17 04

BEASAIN

LAZKAO

Kultur eskaintza zabala martxoan



lazko martxoaren 8ko afaria.

Indartsu hasiko zaigu kultur ekintzei dagokienean; izan ere, Korrika Kulturala, Emakume-langilearen eguna eta beste hainbat ekintza izango ditugu herrian hil honetan. Jarraian aipatuko ditugunak dira, hain zuzen, garrantzitsuenak.

Martxoak 3: Teresa Lekunberri hizlaria "Euskara eta bere egoera Iparaldean" gaiaz ariko da Maizpide euskaltegian, arratsaldeko 20:30etan. Aurkezlea Juan Mari Larrarte izango da. Ekintza hau Segurako Elorri elkarteak antolatzen duen Iparra-Hegoa ekitaldi kultural zabalaren barnean kokatzen da.

Martxoak 4: Axier Otamendik "Komunikazioaren izen-deiturak" gaia izango du mintzagai Maizpiden gaueko 21:00etan.

Martxoak 6: Axier Otamendik berak "Internet" gaiari buruz jardungo du Udaletxeko Areto Nagusian

arratsaldeko 19:00etan.

Azken bi hitzaldi hauek informatikari buruzkoak izango dira.

Matxoak 8, Emakume-langilearen eguna: egun honetako eskaintza zabala da. Batetik, Korrika Kulturalaren barnean kuestazioa edo diru bilketa egingo da eguerdi eta iluntzean. Egerdia, Oin Arin dantza taldekoek saioa egiteko asmoa dute. 17:00etan neska eta mutilez nahastuta osatutako taldeen arteko futbol partidua izango da plazako futbol zelaietan. Ondoren, Antzar Gazteak txaranga ibiliko da 19:00etatik 21:00etara.

Herriko emakume zenbaiten eskulanen erakusketa ikusgai izango dira Gerriko txokoan goizekoa 11:00etatik 19:00ak arte.

Bukatzeke, afaria egingo da Gerriko txokoan gaueko 21:00etan. Zopa, gixatua eta mamia izango da jaki. Afalostean, berri, JR Elort-

za, Andoni Otamendi eta Iñaki Zubeldia bertsolariak, kantak eta kantak. Afarirako izen-ematea Gerriko liburutegian edo tabernan izango da martxoaren 6a baino lehen.

Martxoak 9: Parrokiako organu zaharraren konponketa dela eta, M^a Karmen Azpeitia zumaiarrak kontzertua eskainiko du eguerdiko 12:30etan parrokiaren bertan.

Martxoak 12: Esther Mugertza eta Amaia Elosegi bikoteak "Nepalen aurpegi ezkutua" izeneko diapositiba-emanaldia eskainiko dute Maizpiden gaueko 21:00etan.

Eranskailu lehiaketa

Sanprointzioetako eranskailuak, pegatinak, ateratzeko asmoa dago. Honetarako antolatu da, hain zuzen, lehiaketa hau. Parte hartu nahi duen edonork euskararen erabilera aldarrikatuko duen esaldiren bat asmatu beharko du. Lanak (egilearen datu pertsonalak eta guzti) Gerriko liburutegian utziko dira martxoaren 17a baino lehen. Inork lanari txuri-beltzeko marrazkiren bat gehituko balio, kontuan hartuko lukete antolatzaileek.

Sariei dagokienez, lehenentzat 5.000 pezeta izango dira; halaber, partaide guztien artean 5 bideozinta

zozketatuko dira.

Lehiaketa honen antolatzaileak Gerriko eta Goiherriko Euskal Eskola Kultur Elkarteak dira.

Ohitura zaharrak berreskuratz

Goiherriko gainontzeko herrietan bezalaxe, aurtengo Sanprointzioetan Soka-dantza berreskuratu nahi da.

Dantza hau, garai batean alkate eta zinegotziek dantzatzeko zuten jaietan. Aurtengo ohitura honi eutsi nahi zaio berriro, eta, dagoeneko, alkatea eta zenbait zinegotzi Beasainera joaten dira dantza hau ikastera.


Udaletxeko lanpostua

Aukeratu dute, jada, Udaletxean bete gabe zegoen lanpostua. Aurrerantzean kudeaketako erdi mailako teknikari berria Izaro Gurutxaga lazkaotarra izango da.

1960an jaiotakoak

Martxoaren 8an afaria egin behar dute 1960. urtean jaiotakoak. Olaberriko Arrietan izango da afaria eta parte hartu nahi duenak martxoaren 3a baino lehen eman behar du izena. Horretarako 4.000 pezeta, jarri behar dira Euskadiko Kutxako 089015499 kontu zenbakian.

Urko Irastorza
Koldo Urrestarazu



X ENKEGI
ETXE-AROZKINTZA

Diseinuak neurritan
Larunbat arratsaldez irekita

Erakusketako eta faxa: 161606 - mugikorra: 908 863591
Senpere Merkatalgunea, 38 BEASAIN

Sukaldeak
Ateak
Zoruak



RENAULT

AGENTZIA

LAZKAO
GARAJEA

Senpere Industrialdea
88 24 42 - 88 89 01
Faxa: 88 89 01
LAZKAO

SEGURA

Bertako produktuen artean, 'Segurako tarta'

"II. Iparra-Hegoa" aste kulturean, izango da zer ikusirik eta non parte harturik. Zapatuan, plazan egingo den "Iparra-Hegoa"ko produktu eta artisauen azokan, herrikoak ere izango dira protagonista.

Bertako produktuen artean, aipagarriena, "Segurako tarta" da. Beheko panaderiko labea pizteari utzi ziotenetik utzi zitzaion tarta egiteari ere. Herriko familia bat, formula lortu eta tarta antzinako erara egiteko prestatu da eta azokan dozena erdiren bat ikusi eta dasatu ahal izango dira. Tarta honen ezaugarriak garrantzitsuena, berau egiteko erabilitako produktuen purutasuna da. Hauen kalitate onak eta eskulan handiak, ordea, asko garestitzen du. Iraupena ere ez du nolanahikoa, orain 50en bat urte, Amerikaratuak segurareei urtero bidaltzen zizkietan tartak. 35 eguneko bariku bidaiaren ondoren egoera onean ailegatzen omen ziren. Tartaz gain, ordea, bertan izango dira ikusgai eta salgai, Aldaerdiko ogia, Ondarreko gaztaia, Ermasoko eztia, sagarrak eta kalabazak, Aldaolako oilaskoak, Omiñoko oilaskoak, intxaurrak eta urrak, Egoianeko indibabak, Ardi-xarraneko porruak, Erbiolako menbriloa, Barberoneko ukendua eta oraindik baiez-tatu gabe dauden beste batzuk.

Herriko artisauen artean, Agustín Legorburu eskoara egiten arituko da, Xantiago Goiburua kaltzeta egiten, Xepiño Agirre trontza zorroztan eta Eugenio Elorza eztiarekin.

IV. Elorri sari banaketa

Martxoaren 2an, 12:30etan Kultur Etxean izango da, IV. Elorri Idazlan Lehiaketaren sari banaketa. Joxeñ Ormazabal idazlea, Garazi Goia ikaslea eta Mariaje Ugalde eskolako zuzendaria, otsailaren 28an elkartuko dira aurtengo saridunak erabakitzeke. Hala ere, ez dira jakitera emango jaiko ekitaldirarte. Ondoren, *luntxa* izango da Elorri Elkartean.

Bola-jokoa

Goierriko txapelketaren barne, otsailaren 22an Seguran izandako bola-saioan, Eritz Intxausti, 18 urteko herritarra 2. geratu zen, 8 botalditan 48 birla jo ondoren. Gipuzkoako txapelketan, berriz, 18 jardunaldietako 6 jokatu direnean, sailkapen orokorrean Igo Martxelino Agirre eta 2. Xepiño Agirre doaz.

Pelota

Klubaren arteko txapelketan, Iñaki Artolak eta Ibon Etxe-

berriak otsailaren 21ean 22-9 galdu ondoren, otsailaren 28an Sestaon jokatu dute itzulerako partidua. Bestalde, kirol eskolarraren barne, martxoaren 1ean, benjaminen arteko pelota jardunaldiak izango dira. 8 eta 9 urteko Goierriko 25-30 bikote arituko dira Baratze Pelotalekuan 10:00etan hasita. Seguratik, Asier Izeta, Gorka Gerriko, Jon Agirre, Iker Azurmendi, Mikel Garzian-dia eta Iñigo Izuzkiza.

Futbola

Asteburuko emaitzak: **Infantilak:** Lagun Onak 2-0 Aizkorri. **Kadeteak:** Billa-bona 1-1 Aizkorri. **Jubenilak:** Intxurre 0-5 Segura. **Errejonialak:** Munibe 6-3 Segura.

Asteburuan etxean: **Zapata:** **Infantilak:** Aizkorri - Elgoibar (15:30). **Jubenilak:** Segura - Billabona (17:00). **Jaia:** **Kadeteak:** Aizkorri - Mundaiz (11:30). **Errejonialak:** Segura - Baskonia (15:30)

Labur labur

● Gipuzkoako Erlazainen Elkarteak, otsailaren 14an, Donostiako Miramar Jauregian egindako jardunaldi teknikoetan, Gipuzkoako eztiaren Igo dastaketa antolatu zuten. Lehiaketara 22 ezti aurkeztu ziren eta **Eugenio Elorza** herritarraren sasi eta gaztain loreen eztiak jaso zuen Gipuzkoako 1go saria.

● **Santa Ageda** bezperako eskean, herriko talde batek 117.442 pezeta jaso zituen; erdia 3. mundurako eta beste erdia herriko ermittentzat izango da. Elorri KE-koek 106.700 pezeta jaso zituzten, hau, koplariak ordaintzeko eta urtean zeharreko ekitaldi kulturaletarako izaten da. Laiotz Herri Eskola-koek 35.000 pezeta bildu zituzten eta eskolako beharretarako erabiliko dute.

● Otsailaren 19an margotu zituzten Diputazioko langileek, Idiazabaldik Segurarako eta hemendik Zegamarako **errepidetako marrazkiak**.

● Laiotz Herri Eskolak ateratako **errifaren zenbaki saritua** 1393 izan zen. Mendiko bizikleta eta ekipo musikala Beheko Panaderiko Jasone Telleriari tokatu zitzaizkion.

● Udala, trakzio mekaniko-ko ibilgailuen **zerga muni- zipala** martxotik aurrera hasiko da kobratzen.

● Udalaren inizatibaz, martxoaren 8an, emakumearen eguna dela eta, 2. urtez egingo dute **emakumeen arteko afaria** Imazenen. Aste bererako, sukaldaritza ihardunaldia, zinea eta abar ere antolatzeak dira.

Joseba Telleria



Atseden Jubilatuen Elkarteak antolatuta, otsailaren 21ean jokatu zen jubilatuen XII. mus, tute eta punttuko finala. Musean, Juan Ugaldek eta Julian Galarzak irabazi zuten, 2. Jose Palacios eta Manuel Imaz. Tutean, Xabin Aldanondo eta Inazio Urbizu izan ziren irabazleak, 2. Periko Galarza eta Joxe Goia. Punttuan, Estanix Agirre eta Satur Arizkorreta izan ziren lehenak, 2. Periko Galarza eta Pedro Mari Galparsoro. Argazkian, irabazleak bere trofeoekin eta partehartzaileetako gehienak.

ORDIZIA

'Euskaraz bizi' kalera

Jakintza ikastola euskararen erabilera haurren eguneroko bizitzan finkatzeko asmoz lanean dabil egunegun. Hau dela eta 'euskaraz bizi' proiektua sortu zuen eta urte osoan zehar era bateko eta besteko jarduerak burutzen ari da Ikastolan bertan. Oraingoan, berriz, eremu hori alde batera utzi eta herri osoan zabaldu nahi izan dute ekimen hori. Kultur astea ospatzen ari direla eta, otsailaren 27a, osteguna, aukeratu zuten horretarako eta hor ibili ziren Jakintza-ko ikasleak "haur, gazte, heldu: euskaraz mintzatu" lemapean Ordiziako txoko gehienetara heldu nahian.

Haur hezkuntzakoek, pailazoekin batera, ikusle moduan gune ezberdinak bisitatu zituzten. 1. eta 2. mailakoak, aldiz, Enparantza Nagusian finkatu ziren gurasoengandik jasotako jolasetan aritzeko (tortoloxak, txapak, txingoa, plotten...). Pilotalekuan 3. eta 4. mailakoak aritu ziren herri kiroletan eta 5. eta 6. mailakoak dendaz-denda ibili ziren eguneroko gaiak erosiz, era honetan dendari eta bezeroaren arteko erosketa-harremana euskaraz burutuz.

Martxa txapelketa

Giro hotz baina politean burutu zen joaneke otsailaren 16an "Euskadiko V. Martxa Txapelketa". Ibilbidea zirkuito itxi batek osatzen



Kultur astea Jakintza Ikastolan

Joan zen ostiralean hasita, aste osoan kultur astea ari dira ospatzen. Irteerak, kirolak, ipuin kontaketa, Aitor Furundarena-ekin euskal abestiak, Txiskola, altxorren bila, bazkariak, lehiaketak, play-back eta abar izan dituzte. Gaurkorako hainbat ekintza antolatu dituzte: besteak beste, sukaldari lehiaketa eta bazkaria Oiangun, ipuin kontaketa eta dantzaldia. Argazkian joan zen ostiralean eskolaurreko haurrek gurasoei eskaini zien jaialdiko une bat azaltzen da.

zuen, Poligonoa eta Joseba Rezola pasealekua erreferentzi gisa hartuz eta bertan gorengo mailan Mikel Odriozola izan zen irabazle. Iazko garaileak ez zuen zailtasunik izan eta ordu t'erdia nahikoa izan zuen garaipena eskuratzeko.

Emakumezkoetan Ana Cristina Vieira bizkaitarra nagusitu zen, faborita nagusia zen Celia Marcel kanporatua izan ondoren. Junior mailan, berriz, Txindoki taldeko Erika Gonzalez izan zen garaile.

Jakingo duzuenek Atletismo taldea Ordizia Kirol Elkartetik banandu eta

Txindoki A.T. izenarekin dabil orain. Honen arrazoiak badirudi futbol taldekoekin zituzten ikamikak izan zirela. Txindokiko Eneko Caballerok ere junior mailan bigarren postua lortu zuen.

Kontaketa laburren lehiaketa

Kimetz emakumeen elkar- teak antolatuta Kontaketa Laburren III. Lehiaketa martxan dago. Antolatzaileek orainarteko arrakasta berbera izango duelakoan daude, bai partaidetza, bai lanen kalitateari dagokionez. Lanak apirilaren 12a baino lehen aurkeztu behar-

ko dira Barrena Kultur Etxean. Lehiaketa euskaraz eta gazteleraz izango da eta baldintzak ohikoak izango dira (5 eta 10 orri bitartekoak, espazio bikoitzarekin...). Aurtengo aldaketa bakarra zera litzateke, parte hartzeko derrigorrezkoa izango dela 17 urte beteak izatea.

Sarien irabazleak maiatzerako jakingo dira. 30.000 pezeta izango dira euskara zein gaztelerazko kontaketa laburren irabazleentzat eta 15.000 pezetako sari berezi bat emakumezko batek idatzitako lanik hoberenarentzat.

Bideo emanaldiak

Aurreko alean adierazi genizuen bezala, aurtengo ere Hitzaro Euskara Elkarteak euskarazko bideo emanaldiak antolatu ditu Barrena Jauregian. Otsailaren 15ean hastekoak baziren ere aste-betez atzeratu dira emanaldiak eta orduan esan genizuen "Txerrikume Atsegina" 22an bota zuten. Haur dexente bildu zen eta ziur hemendik aurrera ere hor izango ditugula beroriek larunbatetan arratsaldeko 5etan Barrenako sarrera aurrean. Gogoratu sarrera 100 pezeta kostako dela eta haurrek ordubete atsegin bat euskaraz pasatzeko aukera ona dutela.

Aitor Calvillo

EZKURRA ATEAK

Ateen ezartze eta salmenta
Tarima eta parketak



☎ 16 07 50 Domingo Unanue, 2
Faxa: 88 09 13 ORDIZIA

LEIAR

KRISTALDEGIA



ERAKUSKETA:
Ezkiaga Pasealekua z/g ☎ 88 88 24

BILTEGIA:
Salbatore Industrialdea ☎ 88 60 70

BEASAIN

OSTASUN

BELAR ETA DIETETIKA DENDA
NATUROPATA

Eska ezazu eguna eta ordua

Goierrri 10 ☎ 88 61 14 ORDIZIA

ATAUN

Idazle sarituak herrian

Izaskun Egigurenek, iazko abenduan bi sari irabazi zituen bata bestearen atzetik: Urretxu eta Zumarragako udaleek antolatutako literatura lehiaketan, 2. saria eraman zuen beste batekin elkarbanatuta (12.500 pzta.). Euskaraz idatzitako fantasiako ipuin honek bi banpiroen arteko amodio istorioa kontatzen du. Azkoitia-ko "Bizenta Mogel" XV. ipuin lehiaketan ere 2. saria lortu zuen (50.000 pzta.), protagonistak gaztetako idealak errekuperatu nahian egiten duen bidaia bati buruzko ipuinarekin. Bestalde, Ainara Aizpuruak 2. saria eskuratu berri du Resurreccion Maria Azkue literatura lehiaketan. Euskaltzaindiak eta BBKak antolatutako lehiaketan gazte mailako narrazio sailean hartu zuen parte ataundarrak (14-17 urtekoentzat) eta 2. postu horri esker, 40.000 pezeta be-

reganatu ditu. "Isilpeko gaisotasunak" izeneko idazlan honek, bulimia duen neska baten eta anorexiak jota dagoen beste baten arteko harremanak kontatzen dizkigu. Azkenik, jakin badakit beste herritar batzuek ere izan direla sarituak Beasaingo udalak antolatutako lehiaketan. Horien berri ere izango duzue hurrengo batean. Oraingoz, zorionak denei!

Iker Sukia

Ataundar pisu jaurtitzailak, 3 domina irabazi berri ditu denbora tarte oso txikian, hirurak estalitako pistetan: junior mailan Espainiako txapelkun bezala urrezkoa; eta senior mailan, hau da, mailarik altuenean, beste biak: urrezkoa Euskadiko txapelketan eta brontzezkoa Espainiakoan. Gainera, azken hau senior kategorian eta Espainiako txapelketa

batetan lortzen duen lehen domina da eta era berean, estalitako pistan pisu jaurtiketan horrelakorik egiten duen lehen gipuzkoarra ere. Ataundarrak berak esanda, ez omen zegoen sasoi bete-betea, aurreko hilabetea izandako arazo fisiko batzuk tarteko. Honi ere zorionak, beraz!

Ataungo Mendizaleak

Talde sortu berri zaigu herrian. Behar bada dagoeneko izango duzue talde honen berri, irteeraren bat egiteko asmoa izan dutenean kartelak jarri baitituzte herrian zehar. Hala ere, hara hemen zenbait datu: talde honen asmoa ataundarron mendizaletasuna bultzatu eta aldi berean herritarron arteko lagun giroa estutzea da. Oraingoz, lagun talde bat dira, ez elkarte bat eta aurtengoari begira, behintzat, ez daukate asmorik

Euskal Herriko Mendi Federazioko elkarte bezala antolatzeko (datorren urtera begira, aukera hori ez dute baztertzen). Mendi irteerak egin dituzte, inguruan eta urrunago (Anboto...) eta ibilaldi hauekin jarraitzeaz gain, badute asmoa ere beste ekintza batzu burutzeko (Aste Santuko egonaldia mendiko aterpe batetan, mendiko bizikletan irteerak, eskalada ikastaroak...). Ekintza horietan guztietan parte hartzeko deia herritar denei zuzenduta dago eta mezua hauxe da: animo eta denok mendira!

Heriotza baten berri

Hil berri zaigu, Suki-aundi-ko Jose Goena Irastorza ere, 72 urte zituelarik. Bere sendikoekin bat egiten dugu euren nahigabea.

Josune Aldabe

ZEGAMA

Babes ofizialeko etxebizitzak

Otsailaren 20an banatu ziren izena emandakoen artean Babes Ofizialeko etxebizitza eskatu ahal izateko oinarriak. 24 etxebizitza, 90 m²koak izango dira eta 8 etxebizitza 66 m²koak. Azken hauek beheko solairukoak dira eta lorategi pribatu bat izango du bakoitzak. Informazio gehiago behar duenak jo beza Udaletxera.

Bertsolari gazteen afaria

Oraindik eguna zehazteko badago ere, esan, datorren martxoaren erdi aldera, bertsolari gazteekin bertso afaria egiteko asmoa dagoela Kultur Etxeak antolatutarik. Afari hauen helburua, bertsolari gazte hauei jende aurrean bertsotan aritzeko aukera ematea da, besteak beste. Eguna, tokia eta or-

dua, zehaztutakoan Kultur Etxeko iragarkien bidez jakinaraziko da.

Parrokiako ekintzak Garizuman

Martxoak 6: Otoitzaldia. Iluntzeko 8.00etan.

Martxoak 13: Gurutz Bidea. Iluntzeko 8.00etan.

Martxoak 15: Parrokiko

meza Euskal Telebistatik. Iluntzeko 7.00etan.

Odol ematea

Martxoak 15, larunbata, odol ematea egingo da Jubilatuen egoitzan, arratsaldeko 5.00etatik aurrera. Lehenez gain, odol-emaile berriak ongi etorriak izango dira.

Edurne Albizu



Poeta Lizardi, 2
TOLOSA
Tfnua. 65 29 01

18
HILABETE

Interesik gabeko finantzaketa

ANDRA MARI TABERNA

- Eguneroko menua
- Sagardotegi menua
- Asteburuko menu bereziak
- Babarrunak
- Karta

100 pertsonentzat jantokia
'Zuk prezioa jarri eta guk menua'

ANDRA MARI, 5 ☎ 88 69 13 BEASAIN

Bola-jokoa gaztetu nahian



Bola-jokoa galtzear zegoela konturatu eta gazteekin lanean hasia erabaki zuten bolariak. Era horretan, Segura eta Idiazabalen, gazteei bola-jokoa erakusteko entrenamenduak egiten dituzte egunero. Seguran lan horretan aritzen den Xepeño Agirre-ekin izan gara berrikerian.

Punta-puntako bolaria da Xepeño, iaz esaterako, Euskadiko txapelketan, 2. egin zuen. 12 bat urteko 7 mutil entrenatzen ditu. Bolatan ikasi nahi duen edonorentzat dago zuzendua "eskola" hau. Egutero elkartzen dira arratsaldeko 6ak aldean Segurako bolatokiak. "Guk bolariok, ez genuela lantzen ikusi genuen. Futboleak, pelotan... denek daukate entrenatzaile bat. Bolatan inor ez zegoen. Horrela hasi ginen", adierazi digu Xepeñok.

Gazteak gustora joaten omen dira, baina haurrei taldekako jokoa gehiago gus-

tatzen zaizkiela uste du segurarrak, "bolatan itxaron egin behar da". Xepeñok txikitatik ikasi zuen bolatan, 19-20 bat urterekin utzi eta 28rekin berriro itzuli zen bolen mundura. "Lehen ere gazte askok ikasi zuten bolatan, Imanol Artola eta Xabier Imaz pelotariak esaterako. Baina adin batean beste kirol batean hasten dira, nahiz eta gero batzuek berriro itzuli".

Bola-jokoak entrenamendu asko eskatzen du, segimena. "Zenbait eta gehiago ibili, orduan eta hobeto. Gorputz osoa ondo eduki behar da: besoak, gerria, belaunak... herren txiki bat nahikoa da bolea kanpora botatzeko. Asteroko segimena behar da".

Seguran 12 bolatoki eza-gutu ditu Xepeñok, gaur egun, bakarria dago, Baratze pilotalekuaren atzealdean. Bolariak ere asko ziren, baina herri mailako lehiaketetan bakarrik parte hartzen

Goieriko txapelketa

Otsailaren 1ean hasi zen eta 5ean bukatuko da. Gabirian, Idiazabalen eta Seguran jokatu da. Martxoaren 1ean Olaberrian jokatu da, 22an Zerainen eta apirilaren 5ean Mutiloan finala. Huez gain Legazpian ere jokatzen da, Muru eta Danantzakon martxoaren 8 eta 15ean. Orduetgia goizez, 12:00etatik 13:00etara eta arratsalde 4:30etatik 5:30etara da. Sariak: 1goarentzat: 22.000 pzta, txapela eta trofeoa, hortik behera 9. sailkaturarte dira sariak, azken honek 8.000 pzta eta trofeoa jasoko ditu. Herri bakoitzeko irabazlearentzat 10.000 pzta eta trofeoa daude. Finaleko irabazlearentzat berri, 25.000 pzta eta trofeoa.

Gipuzkoako txapelketa

Urtarrilaren 5ean hasi zen eta maiatzaren 25ean bukatuko da. Mutiloa, Gabiria, Idiazabal eta Olaberrian jokatu dira. Martxoaren 30ean Seguran, apirilaren 13an Gabiriko Kortan eta maiatzaren 15ean Zerainen jokatu da. Orduetgia: goizez 9:00etatik 12:00etara eta arratsalde 16:30etatik 17:30etara da. Honez gain beste modu batzuetako txapelketak ere jokatzen dira: taldeka, ekainaren 8an Seguran; bikoiteka, uztailaren 6an Mutiloan eta bakarka, irailaren 28an Gabiriako Kortan.

IV. Endika Alustizaren omenezkoa

Otsailaren 23an jokatu zen zerainen. Gilberto Juaristik irabazi zuen. Informazio gehiago 11. orrian.


I. Joxe Kerejetaren omenezkoa

Martxoaren 1ean jokatu da Olaberrian, 11:00etatik 13:00etara eta 16:30etatik 17:30etara. Sariak irabazlearentzat 6.000 pzta-tik hasi eta 7.arentzat 2.000 pzta-raino. Lehengo jubenilak eta herriko lehenengoak ere saria izango dute.

zuten. "Seguratik probintziatiko lehiaketetara joaten ni hasi nintzen, hasieran Zeraingo taldearekin. Irabazten nuenean, egunkarietan zeraindarra nintzela jartzen zuen eta amorrazioa ematen zidan, Seguran hainbeste bolari izanda Zeraingo taldean aritu beharra. Egin behar genuela jarri zitzaidan buruan. Bolatoki estalirik

ere ez geneukan herrian. Lehiaketetan trabes asko izaten zen, pezetak, erreal bikoak... ikaragarri jokatzen zen", gaineratu du.

Goierri Gabirian, Zerainen, Idiazabalen, Olaberrian, Seguran eta Mutiloan daude bolatoki estaliak. Mutiloakoa egin berria da, eta segurarrak aitortu digunez, oso dotorea.



ARRIZAR BODEGOIA

Egutero menua 850 pezeta
astelehenetik ostiralerak,
12:30 etatik 15:00 etara

Zaldizurreto, 7 ☎ 88 98 44 BEASAIN



Disco-Shop

Zure disko denda!

K. Nagusia, 42 ☎ 16 19 76

BEASAIN

JAUREGI

TOLDOAK s/l

Tfnoak.: 88 02 43 - 88 01 33

BEASAIN

'Berriro igo nauzu' nobela kaleratu du Xabier Mendiguren beasaindarrak

Itzuli da. Etxera dator preso, Espainiako kartzeletan ia hemezortzi urteko zigorra osorik bete ondoren. Gurasoak besarkatzea, lagunekin topatzea, ongi-etorriko ekitaldiak... uholdeka datozkio sentipenak eta oroitzapenak lehenbiziko egun horietan, eta presoak ere sentimenduz gainezka dauka bere barrena, elkarren kontra talkaka borrokan: poza eta amorrua, samurtasuna eta zakarkeria, bizinahia eta nekea, porrota eta biziraupena...

Xabier Mendiguren Elizegi beasaindar idazleak Euskal Herriko gatazka dela eta, bere barruan zuen oina-zea arintzeko idatzi duen nobela da 'Berriro igo nauzu'. "Gatazka horrek irtenbidea behar du, baina ni ekintzailea ez naizenez, idatzi egin dut. Liburu hau idatzita ez dut lehen bezalako zauririk edo oinazetik", dio Mendigurenek.

18 urte Espainiako kartzeletan preso egondako Joxe Garmendia 'Marmite' ETAKidearen historia kontatzen du, etxera datorreneko unea. Dena den, idazleak garbi utzi nahi izan du, liburu ez dela ETako preso ba-



ti buruzko historia. "Zerbait sakonagoa eta zabalgogo da: familia mota baten galera, baserri munduaren galera, belaunaldi ezberdinetan euskararen egoera...".

Hori bai, Mendigurenek ez du inolako tesirik egin nahi izan liburu honekin. "Razionalki azaldu ezin den magma bat azaltzeko modua da liburuak. Egia sakonago baten adierazle ere izan daiteke. Irakurleari sentipen bat agertzea da nire asmoa, ez inor konbentzituaztea, eta ez tesi bat egitea, ez da galderen erantzunik ematen". Beasaindarrak adierazi duenez, "liburuaren irakurketak ez du politikoa izan behar, irakurketa literarioa baizik".

Kontrastez eta kontraesan- ez betetako liburuak da. Umoretsua eta azalean tris-

tea; atsegina eta aldi berean zakarra; ideien arteko kontraesanak.

Goierri kokatua

Goierri kokatua dago nobela; tabernak, mendiak, herriak, jendea... Goierrikoak dira. Beasain, Segura, Zaldibia, Legorreta, Txindoki... Idazleak berak ondoren ezagutzen duen unibertsoa. Leku eta pertsonaia asko benetakoak dira idazleak esan digunez. Bitxiak bat: orain artean Xabier Mendiguren inoiz ere Txindokira igo gabea zela aitortu du. Nobela hau idazterakoan beharrezko ziren xehetasunak ondo ematearren, lehenengo aldiz igo zen Txindokira.

Hizkuntza aldetik, eguneroko euskara erabili du, elkarrizketa ugari sartu du. Liburu umoretsua da, nahiz eta sakonean gai tristeak

izan. "Gezurra da euskaldunok umorerik ez daukagula", dio.

Bigarren pertsonan dago idatzia. Liburuaren tonua "subjetiboa eta beroa izatea nahi nuen. Horretarako lehenengo pertsona da egokiena. Baina preso baten barruan sartzea gogorra zen. Ez dut kartzelarik ezagutzen, ez eta nahi ere. Lehenengo pertsonan idazteak erreparoa ematen zidan. Narratzailearen begiak protagonistarenak dira", aitortu du.

Joxe Azurmendi

Donostian egin zen 'Berriro igo nauzu' liburuaren aurkezpenean, Joxe Azurmendi zegamar idazle eta filosofoa izan zuen ondoan Mendigurenek. Liburuak irakurria du eta hona hemen zegamarrak liburuaz duen iritzia: "lehenengo 30 orrialdeak oso oso gogorrak dira, desagradablea da, bai gaiari, bai hizkuntzari dagokionez. Gure herriko errealitatea den bezala agertzen du. Onik ez dago, gaizto xamarak bai. Kontradizioak azaltzen dira, sentimendu kontraesankorrak. Bukaeran berezko ambiguitasunean gelditzen da. Oso euskara ona du, eta estilo zoragarria du".

L.A.

lues rothers
BEASAIN

LOINATZ

Taberna
Jatetxea

Bazkari, afari,
ogitarteko, pintxoak

Nagusia, 27 882007 BEASAIN



GOIERRITARRA



88 96 12



1977ko ordizarrak

Ordiziako Jakintza Ikastolan, bi urte besterik ez zituztenean ateratako argazkia da.

Zutik: Aitor Urreta, Edurne Alonso, Leire Serrano eta Maider Muñoz.

Eserita, atzeko ilaran: Mariasun Etxeberría (andereñoa), Nagore Arza, Garbiñe Astudillo, Ainize Lasá, Eneko Lasá, Alaitz Roro, Arantxa de Juan (andereñoa) eta Raul Feiz.

Eserita, aurreko ilaran: Idoia Mendizabal, Gera Demarkos, Ainara Ormaetxea, Oskarbi Hernandez, Nekane Galparsoro, Leire Catalan eta Alaitz Iraola.



- ⊗ zerbikaletako arazoak dituzula
- ⊗ gerri alde hori pakean uzten ez dizula
- ☺ orain duzu profesionalen eskuetan jartzeko eta arazo horiei aurre egiteko aukera
- ⊗ gustoko kirola egiten tiroia, uzkurdura, zuntz hausturaren bat... izan duzula

- ☺ arazoa okertu baino lehen tratamendua jarriko dizugu
- ⊗ kotxe edo lan istripua izan eta errehabilitazioaren beharra baduzu
- ☺ aseguru konpainiekin ere lan egiten dugu
- ☺ tratamenduak etxez etxe
- ☺ elektroterapia, ultra-soinu, esku-terapien bidezko tratamenduak

Iragarki hau erakutsiz gero %10eko beherapena egingo dizugu

ZAINDU Fisioterapia Gabinetea

Domingo Unanue Plaza, 3
ORDIZIA
☎ 16 19 12

PSIKOLOGI KLINIKOA



Jose Ramon Pato Prieto
Psikologian lizentziatua
Elkargokide zenbakia: E-2644
RPS: 420/95

Helduen, umeen, bikoteen eta
sexologi tratamenduak

AURRE ZITA
☎ 88 72 21

Oriamendi, 3 - 2. ezk.
BEASAIN

EUSKALDUNON

1997

Gida

Elektrikariak
Suhiltzaileak
Iturginak
Aseguruak
Sarrailagileak
Bidaiak
Jatetxeak

K
O
M
E
R
T
Z
I
A
L
A

Informazioa:
☎ 943-300222

e u s k a l d u n o n
Egunkaria

Ileapaindegia
Ikuskizunak
Argazkilariak
Haurtzaindegia
Mekanikariak
Dentistak...